

# **Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco**

## **Kimika Fakultatea**

### ***Kimikako Gradua***

GRADU AMAIERAKO LANA

Diamina kiralak organokatalisian: Maleimidaren Michael erreakzioaren  
ikerketa konputazionala

**Egilea:** Haritz Perez Furundarena

**Zuzendaria:** Enrique Gomez Bengoa

Donostia, 2019ko ekaina.



## *Eskerrak*

*Lan hau bukatzeko pertsona askok lagundu du prozesuan zehar. Lehenik eta behin lan honen zuzendaria den Enrique Gomez Bengoari eskerrak eman nahi dizkiot, ikerketan zehar nigan izan duen ardura eta pazientziarengatik eta lan honen oinarria den artikulua argitaratzeagatik. Lia Sotorriosi kimika konputazionalaren munduan gidatzeagatik. UPV/EHUko IZO/SGI SGIker zerbitzu konputazionalari beraien laguntzarengatik. Alicanteko R. Chinchilla eta bere taldeari erreakzioaren ikerketa konputazional bat eskatzean gudan izan duten konfiantzagatik. Azkenik eskerrak eman nahiko nizkieke Josu aita, Arantxa ama, Oihan anaia eta Edurneri lan honen prozesuan eta graduan zehar emandako laguntza pertsonalarengatik.*

98540111 14 240401 2020



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

---

KIMIKA FAKULTATEA  
FACULTAD DE QUÍMICAS



## Laburpena.

Lan honetan laborategian egin diren diamina kiralez organokatalizatutako enamina eta maleimida molekulen arteko Michael adizio erreakzioaren enantioselektibotasuna ikerketa konputazionalen bidez azaldu da. Azterketan katalizatazaileak erreakzioan duen mekanismoan sakondu da, diamina organokatalizatazailearen talde desberdinen eta disolbatzailearen efektua azalduz purutasun enantiomerikoan.

## Abstract.

In this work, Michael addition of enamine and maleimide organocatalyzed by diamine reactions have been explained by a computational study. In the research, the mechanism of the catalyst has been studied in depth, explaining the effect of different groups of the diamine organocatalyst and the solvent.

97801 15 24041 2020



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

---

KIMIKA FAKULTATEA  
FACULTAD DE QUÍMICAS

# Aurkibidea

1. Sarrera.....	1
1.1 Kimika Organikoaren hastapenak.....	1
1.2 Kiralitatea molekula organikoetan.....	3
1.3 Sintesi asimetrikoa.....	6
1.3.1 Sintesi asimetriko motak.....	7
1.3.2 Metodo katalitikoaren oinarria.....	8
1.3.3 Katalizatzaile motak.....	9
1.4 Enamina bidezko organokatalisi asimetrikoa.....	11
1.4.1 Organokatalisi asimetrikoaren oinarria.....	12
1.4.2 Organokatalisi motak.....	14
1.5 Maleimida bidezko Michael adizio erreakzioa.....	16
1.5.1 Michael adizio erreakzioa.....	18
1.6 Kimika konputazionala.....	21
1.6.1 Kimika konputazionalaren oinarria.....	22
1.6.2 Dentsitatearen funtzioaren teoria.....	24
1.6.3 Kalkulu motak.....	25
2. Aurrekariak.....	28
3. Helburua.....	30
4. Zati esperimentalak.....	31
4.1 Erabilitako metodoak.....	31
4.2 Jarraitutako pausoak.....	41
5. Emaitzak eta eztabaida.....	47
5.1 Erreakzioaren mekanismo orokorra.....	47
5.1.1 Kondentsazio eta hidrolisi erreakzioen mekanismoak.....	48
5.1.2 Michael erreakzioaren mekanismoa.....	57
5.2 Purutasun enantiomerikoa.....	59
5.2.1 Katalizatzailearen R taldearen efektua.....	60
5.2.2 Disolbatzailearen efektua.....	63
5.3 Albo erreakzioak.....	66
6. Ondorioak.....	67
Eranskina.....	I - XLII

97801 15 24041 2020



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

---

KIMIKA FAKULTATEA  
FACULTAD DE QUÍMICAS

# 1. Sarrera.


## 1.1 Kimika organikoaren hastapenak.

Gaur egungo kimika organikoaren definizioa karbonozko konposatuen kimika da baina ez du beti esanahi hau izan. Iraganean konposatuak bi taldetan sailkatuta zeuden, izaki bizidunek sortzen zituzten konposatuak organikoak ziren eta lurretik edo harrietatik lortutakoak ez organikoak. Konposatu organikoak sortzeko bizi-indar bat behar zela eta laborategian lortu ezin zirela uste zen arren, 1828. urtean Friedrich Wöhler kimikari alemaniarrek 1.1-1. eskeman azaltzen den urearen sintesia burutu zuen amonio zianatetik eta hipotesi hau faltsutu zuen, hau da, erreaktibo ez organiko batetik produktu organiko bat lortu zuen. Aurkikuntza honen ondorioz kimika organiko sintetikoaren ikerketa bultzatu zen.<sup>1</sup>



**1.1-1. Eskema.** Friedrich Wöhlerrek 1828. urtean egindako sintesiaren deskribapena.

Molekula organikoen sintesirako erreakzioetan kimioselektibitatea eta erregioselektibitatea ikertzen ziren. Adibidez toluenoaren ordezkapen elektrozale aromatikoa orto, meta edo para posizioan emango den ikertzea 1.1-2. eskeman ikusten den bezala. Horretarako molekula bi dimentsioetan marraztearekin nahikoa zen eta molekulen hiru dimentsioetako geometria espaziala ez zen kontuan hartzen, lotura berdinak zituzten atomoak berdinak kontsideratzen ziren.



**1.1-2. Eskema.** Toluenoaren ordezkapen elektrozale aromatikoan hiru aukera daude: Eraztun aromatikoak orto posiziotik (urdinez), meta posiziotik (gorriz) edo para posiziotik (berdez) erasotzea. Selektibitate honi erregioselektibitatea deitzen zaio.

<sup>1</sup>Química orgánica; Wade, L. G., Pedrero, Á. M. M., García, C. B., Pearson Educación: Madrid, 2004.

1848. Urtean Louis Pasteur kimikariak azido tartarikoaren kristalizazioan bi kristal desberdin aurkitu zituen, kristalak gainjarri ezin ziren bi ispilu irudi ziren. Gainera kristal bakoitzaren aktibitate optikoaren absolutua berdina zela baina balioek aurkako zeinua zutela ikusi zuen.<sup>2,3,4</sup> Hau ezin zen bi dimentsioetan marraztutako molekula batekin azaldu. Bi hamarkada ondoren van't Hof,<sup>5</sup> eta LeBel<sup>6</sup> kimikariek bananduta lan eginda bi molekulen aktibitate optikoa karbonoaren egitura tetraedrikoarekin erlazionatu zuten. Molekula kimikoak aipatzean formula molekularra eta atomoen loturak kontuan hartzeaz gainera egitura espazialaren garrantzia nabarmendu zuten.

Hasieran, molekula enantiomeroak desberdinak kontsideratzen ziren arren gorputzean efektu berdinak zituztela uste zen. Ezjakintasun honegatik historian zehar hainbat ezbehar gertatu dira medikamentuak disoluzio errazemiko bat bezala saldu direlako enantiomeroen efektu desberdinak ezagutu gabe.

Adibidez berrogeita hamargarren hamarkadan Grünenthal GmbH enpresa farmazeutikoak efektu lasaigarria zuen botika merkatuan jarri zuen baina bere enantiomeroak efektu teratogenikoa zuen, hau da, enbrioian malformazioak eragiten zituen.<sup>7</sup> Botika nahaste errazemiko bezala saltzen zenez Europa eta Afrikan ume asko malformazioekin jaio ziren. 1.1-1. Irudian ikusi daiteke botika honen printzipio aktiboaren egitura. Gaur egun jakina da gorputzak enantiomero bat bestean bilakatzen duela, beraz botika enantiopurua izateak ez luke ezer konponduko.<sup>8</sup>

Molekula enantiomeroek duten efektu desberdina ez da bakarrik talidomidan gertatzen, adibidez S-limoneno molekulak laranja usaina duen bitartean R-limoneno molekulak pinu edo limoi usaina du.<sup>9</sup> 1.1-1. Irudian ezaugarri desberdinak dituzten molekulak ikusi daitezke.

---

<sup>2</sup> Pasteur, Vallery-Radot, M., Librairie Académique Perrin: Paris, **1994**

<sup>3</sup> Pasteur, L. *Ann. Chim. Phys.*, **1848**, *24*, 442-459.

<sup>4</sup> Flack, H. D. *Acta Crystallographica Section A: Foundations of Crystallography*, **2009**, *65*, 371-389.


<sup>5</sup> Van't Hoff, J. H. *Arch Neerland Sci Exact Natur*, **1874**, *9*, 445-454.

<sup>6</sup> Le Bel, J. A. *Bull. Soc. Chim*, **1874**, *22*, 337-347.

<sup>7</sup> McBride, W. G. *Lancet*, **1961**, *2*, 291-293.

<sup>8</sup> Teo, S. K.; Colburn, W. A.; Tracewell, W. G.; Kook, K. A.; Stirling, D. I.; Jaworsky, M. S.; Scheffler, M. A.; Thomas, S. D.; Laskin, O. L. *Clinical pharmacokinetics*, **2004**, *43*, 311-327.

<sup>9</sup> Danon, B.; Van Der Gryp, P.; Schwarz, C. E.; Görgens, J. F. *Journal of Analytical and Applied Pyrolysis*, **2015**, *112*, 1-13.



**1.1-1. Irudia.** Pertsonengan enantiomeroek eduki ditzaketen ezaugarri desberdin batzuen adibidea, biomolekula kiralen aurrean aktibitate desberdinak dituztelako.

Enantiomeroen jokaera desberdin hau dela-eta sintesi organikoaren helburua ez da bakarrik lotura kimikoak erregioselektiboki sortu edo puskatzea, baita erreazioan produktuaren geometria menperatzea ere. Estereokimika molekulen ezaugarri garrantzitsua da, horregatik da gaur egun sintesi asimetrikoa hain garrantzitsua.


## 1.2 Kiralitatea molekula organikoetan.

Sintesi asimetrikoa zer den jakiteko molekula kirala zer den eta hauen kiraltate elementuak ezagutzen ondo ikasi behar da. Aurreko atalean aipatu bezala van't Hoff eta LeBel kimikariek molekula kiralen oinarria karbono tetraedrikoan zegoela aipatu zuten. Karbono asimetrikoak, hots, lau ordezkatzaila desberdin dituen karbonoa kiraltatearen jatorri kontsideratu zuten baina ondoren ikusi da hau ez dela zuzena. IUPAC (*International Union of Pure and Applied Chemistry*) erakundeak molekula kirala bat honela deskribatzen du:<sup>10</sup>

*"The geometric property of a rigid object (or spatial arrangement of points or atoms) of being nonsuperposable on its mirror image; such an object has no symmetry elements of the second kind (a mirror plane,  $\sigma=S_1$ , a centre of inversion,  $i=S_2$ , a rotation-reflection axis,  $S_{2n}$ ). If the object is superposable on its mirror image the object is described as being achiral."*


<sup>10</sup> Moss, G. P. *Pure & App. Chem.*, **1996**, 68, 2193-2222.

Molekula batek simetria eragiketa bat duela esaten denean eragiketa hori burutu eta molekula berbera lortzen da. IUPARek dio molekula kiralek ez dutela isladapen planorik, inbertsio zentrorik edo errotazio-isladapen ardatzik, beraz eragiketa hauek burututa molekula desberdina lortzen bada molekula kirala dela esaten da. Simetria eragiketa hauek aplikatzeko modua 1.2-1. irudian adierazten da molekula bat kirala den edo ez determinatzeko.



**1.2-1. Irudia.** Molekula kirala batek izan ezin dituen simetria eragiketak. R/S nomenklaturaren arabera lehentasun handiena 1 ordezkatzailerak duela kontsideratzen badugu hasierako molekula S da eta eragiketak egin ondoren R. Beraz hasierako molekula kirala da.

Batzuetan eragiketa hauek burutzeko molekulak oso handiak eta konplexuak izan daitezkeenez, molekulak simetria plano bat duten ikusten da molekula kirala den jakiteko. Horrela simetria planorik ez duten molekulak kiralak dira 1.2-2. irudian azaltzen den antzera. Ezkerreko irudiak bi dimentsioetan marraztuz simetria plano duen arren hiru dimentsioetan duen konformazioa aztertuz ez du simetria planorik. Hala ere giro tenperaturan bi aulki konformazioak orekan daude beraien artean eta enantiomeroak direnez energia bera dute eta bakoitza %50eko proportzioan egongo da argi polarizatuaren desbideratze edo desplazamendu angelua ezeztatuz. Normalean bi konformazioak orekan dauden arren kasu batzuetan bi konformazioak elkar-trukatzeak aktibazio energia handiegia izan daiteke eta bi konformazioak kontuan eduki beharko dira estereokimika aztertzean.<sup>11</sup>




**1.2-2. Irudia.** 1,2-dimetilziklohexanoa bi dimentsioetan eta hiru dimentsioetan.

<sup>11</sup> *Organic chemistry: structure, mechanism, and synthesis*. Ouellette, R. J.; Rawn, J. D. Elsevier, 2014.



Orain arte aipatutako molekula kiral guztiak karbono asimetrikoak dituzte eta oso ohikoa da jendeak kiralitatea karbono asimetrikoarekin argudiatzea baina ez da argudio zuzena.

Karbono asimetrikoa edukitzeak ez du zertan molekula kirala dela esan nahi. Karbono asimetrikoa duen molekula akiralari "meso" forma deitzen zaio akirala izan arren karbono asimetrikoak dituelako. Bestalde molekula kiraleko karbono asimetrikoak kiralitate zentroak dira ere. Termino hauek beraien artean desberdinak dira eta ez dira zentro estereogenikoekin (zentro baten ordezkatzailen elkar trukaketa egitean lortutako produktua isomeroa denean) nahastu behar, batzuetan kointziditzen duten arren.<sup>12</sup> Aipatutako molekula kiralen asimetria elementua kiralitate zentroa den arren ez dituzte zertan kiralitate zentroak eduki behar molekula kiralak izateko. Hau gertatzen da adibidez aleno, espirano edo beste molekula batzuekin, beste asimetria elementuak daude, 1.2-3. irudian ikusi daitekeen bezala.




**1.2-3. Irudia.** Zentro asimetrikorik ez duten molekula kiral batzuk.

Kimika organikoan kontuan eduki behar da karbonoaz gainera kiralitatearen jatorri izan daitezkeen beste elementu batzuk egon daitezkeela. Dagoeneko aipatu da karbono asimetrikoek molekularen geometrian eragin dezaketen konplexutasuna baina lau lotura desberdin elementu gehiagok eduki ditzakete, adibidez silizioak. Elektroio pare ez lotzaileek ere molekularen geometrian garrantzia izan dezakete. Hau da adibidez sufre edo fosforoan gertatzen dena. Nitrogenoa ere zentro asimetrikoa izan liteke  $sp^3$  hibridazioan, elektroio ez lotzaileak dituelako, baina giro tenperaturan 1.2-4. irudian ikusten den oreka gertatzen denez, hots, nitrogenoa inbertitu egiten denez, aurkako konfiguraziora pasatzen da. Horregatik nitrogenoa ez da zentro asimetriko bezala kontsideratzen.<sup>13</sup>

<sup>12</sup> Moss, G. P. *Pure and applied chemistry*, **1996**, 68, 2193-2222.

<sup>13</sup> *Chemistry: an introduction to organic, inorganic and physical chemistry*. Housecroft, C. E.; Constable, E. C. Pearson education, **2010**.



**1.2-4. Irudia.** Nitrogenoaren inbertsioa konfigurazio batetik kontrako konfiguraziora,  $sp^2$  hibridaziotik pasatuz (Walden-en konfigurazio inbertsioa).


Enantiomeroen propietate gehienak berdinak diren arren aktibitate optiko desberdinak dituzte. Enantiomeroetako batek argi polarizatua eskuinera desplazatzen du (dextrogiroa) eta besteak ezkerrera (lebogiroa). Lehen aipatu den bezala Louis Pasteur kimikariak azido tartarikoaren kristalen aktibitate optikoan neurtu zituen eta enantiomero bakoitzaren desplazamendu graduaren balio absolutua berdina zela frogatu zuen. Ondorioz nahaste errazemiko baten desplazamendua 0 gradukoa da. Desbideratze angelu hau polarimetroaren bidez neurtzen da laborategian.

Aurreko adibideetan adierazi den bezala enantiomeroen izaera oso desberdina izan daiteke eta kiralitatearen kontzeptua oso konplexua izan daiteke kasu batzuetan. Horregatik erreakzio asimetrikoetan ikusmen espaziala ondo menperatu behar den gauza da, erreakzio enantioespezifikoak ikertzerakoan katalizatzaile kiral eta substratu akiral baten arteko interakzio egokiena zein den aztertzeko.

### 1.3 Sintesi asimetrikoa.

Sintesi asimetrikoa konposatu akiraletatik abiatuz konposatu kiralen lorpen estereoselektibo bezala definitu daiteke.<sup>14</sup> Konposatu organikoak karbono-karbono loturaz osatutako eskeleto batez osatuta daude, zentro estereogenikoak egoteko aukerak handituz. Horregatik erreakzio batean karbono hauen konformazioaren kontrolak garrantzia handia du. Estereoselektibotasun hau lortzeko behar den informazioa laguntzaile kiral batetik, entzima batetik edo katalizatzaile kiral ez entzimatik batetik lortu daiteke, 1.3-1 Irudia.


<sup>14</sup> *Stereoselective synthesis: a practical approach*. Nógrádi, M. Wiley-VCH: Weinheim, **1994**.



**1.3-1.Irudia.** Sintesi asimetrikorako dauden estrategia desberdinen laburpena.

**1.3.1 Sintesi asimetrikorako motak.**

Laguntzaile kirala bat substratoarekin kobalentekei lotzen den eta enantiomerikoki purua den molekula bat da, erreakzioan substratuaren elementu estereogenikoen estereokimika bideratzen duena.<sup>15,16</sup> Mota honetako sintesiek etapa desberdinak dituzte, non laguntzaile kirala substratuarekin lotzen den eta ondoren laguntzaile kirala askatzen den, pausoak 1.3-1 eskeman adierazten dira. Etapa hauetako bakoitza erreakzio independente bat izaten da eta zatika egin behar da. Gainera substratuaren eta laguntzaile kiralaren arteko proportzioa 1:1 izan behar da. Ondorioz prozesuaren errentagarritasuna txikitzen da.



**1.3-1.Eskema.** Laguntzaile kirala baten mekanismoaren eskema. L, laguntzaile kirala; E, erreaktiboa. Kasu honetan laguntzaile kiralak aldehido batetik alkohola lortzean sortzen den zentro estereogenikoaren estereoselektibotasuna bermatzen du. Gezi bakoitza erreakzio banandu bat da, beraz 1:1 izan behar da substratuaren eta laguntzaile kiralaren mol proportzioa.

Metodo entzimatiokoa edo biokatalisia erabilitako lehen metodoa izan zen.<sup>17</sup> Luis Pasteur kimikariak 1949.urtean *Penicillium glauca* mikroorganismoak amonio tartratoaren

<sup>15</sup> Seyden-Penne, J.; Wiley, J.; *App. Organomet. Chem.*, **1997**, *11*, 457-458.

<sup>16</sup> *Asymmetric Synthesis with Chemical and Biological Methods*. Helmchen, G. John Wiley & Sons, 2007.

<sup>17</sup> *Enzyme Catalysis in Organic Synthesis*. Gais, H. J.; Theil, F.; Drauz, K.; Waldmann, H. Wiley-VCH: Weinheim, **2002**.

enantiomeroetako bat deskarboxilatzen zuela ikusi zuen.<sup>18</sup> Biokatalisian sustantzia kiral enantio-aberastuak lortzen dira zelula edo mikroorganismoen kultiboen bidez lortutako entzimak erabiliz. Metodo honen bidez erreakzio baldintza leun edo atseginak, aktibitate katalitiko handia eta erregioselektibitate eta estereoselektibitate onak lortzen dira. Hala ere entzimen egonkortasun delikatu dela eta katalizatzaile sintetiko egonkorragoak erabiltzearen aukera erakargarriagoa da kimikarientzako.

Metodo katalitiko ez entzimatikoa erreakzio kimiko baten abiadura katalizatzaile baten bidez bizkortzen da. Katalizatzailearen mol kantitatea substratuaren mol kantitatearekin konparatuz askoz txikiagoa denez laguntzaile kiral bat erabiltzea baino errentagarriagoa izan daiteke. Gainera ez dira biokatalisian erabiltzen diren entzimak bezain sentikorrak eta ondorioz erreakzio baldintza gehiagotan erabili daitezke.

### 1.3.2 Metodo katalitikoaren oinarria.


Katalizatzaileak erreakzio baten aktibazio energia txikitzen du, substratuaren eta produktuaren Gibbsen energiak aldatu gabe, hau da, erreakzioaren batezbesteko energia aldatu gabe. Erreakzio kimikoa moteltzen duenean, hots, kontrako funtzioa duenean inhibitzaile deitzen zaio.<sup>19</sup> Kasu batzuetan erreakzioaren katalisia erreakzioko produktu batek eragiten du. Honi autokatalisia deitzen zaio eta molekula errektiboko talde batek eragindako katalisari molekula barneko katalisia deritzo. Batzuetan erreakzio baten aktibatzaileari katalizatzailea deitzen zaion arren ez da erabilera zuzena.<sup>19</sup>

Erreakzioan katalizatzailea errektibo eta produktu bezala kontsideratzen da 1.3-2. eskeman (2) adierazten den bezala, beraz ez da kontsumitzen. Erreakzio abiadura azkartzeko katalizatzaileak errektiboarekin katalizatzaile gabe egongo litzatekeen tartekaria baino egonkorragoa den tartekari bat osatzen du. Aktibazio energia tartekari honen energiaren menpekora denez erreakzioaren aktibazio energia txikitzen da eta erreakzioa azkartzeko da.

---

<sup>18</sup> *Comprehensive asymmetric catalysis*; Jacobsen, E. N.; Pfaltz, A.; Yamamoto, H. Springer-Verlag: Berlin, **1999**.

<sup>19</sup> Laidler, K. J. *Pure & App. Chem.*, **1996**, 68, 149-192.



**1.3-2.Eskema.** Gibbsen energia askearen konparaketa A eta B substratuen erreakzioan AB produktura, K katalizatzailea erabilita eta erabili gabe. (1) Erreakzioa katalizatu gabe, beltzez, aktibazio energia ( $A_e$ ) handiagoa da. (2) Erreakzioa katalizatuta, gorriz, erreakzioaren aktibazio energia ( $A_e$ ) txikiagoa da, katalizatzaileak energia baxuagoko konplexu bat osatzen duelako. Katalizatzailea ez da erreakzioan kontsumitzen erreakzioan parte hartzen duen arren.  $\Delta G$  Erreakzioaren Gibbsen energia askearen aldaketa.

Svante Arrheniusek 1889an proposatutako ekuazioaren arabera aktibazio energia abiadurarekin esponentzialki erlazionatuta dago, 1.3-3. eskeman ikusi daitekeen bezala. Ondorioz katalizatzaileak erreakzio bateko aktibazio energia jaisten duen neurrian abiadura esponentzialki jaitsiko da, hots aktibazio energiaren diferentzia txiki batek desberdintasun handiak emango ditu abiaduran.<sup>20</sup>

$$K = A e^{-\frac{A_e}{RT}}$$

**1.3-3.Eskema.** Kimika fisikoan erabiltzen den Arrheniusek ekuazioa.  $K$ , konstante zinetikoa;  $A$ , faktore aurre-esponentziala;  $A_e$ , aktibazio energia;  $R$ , gasen konstante unibertsala;  $T$ , temperatura.



Metodo katalitikoaren bitartez bi erreakzioen abiadura diferentziaz baliatu gaitzke sintesi asimetrikoan erreakzio estereoespezifiko bat burutzeko.

### 1.3.3 Katalizatzaile motak.

Erreakzioaren egoera fisikoaren arabera katalizatzaileak bi taldetan sailka daitezke, katalizatzaile homogeneoak, non erreakzioa fase batean ematen den, eta katalizatzaile heterogeneoak, non erreakzioa bi fase edo gehiagotan ematen den. Adibidez 1.3-3. eskeman ikusi daiteke Lindlar katalizatzailea katalizatzaile heterogeneoa dela, disoluzio likido bat katalizatzeke solido egoeran dagoen paladio pozoitua erabiltzen baita.

<sup>20</sup> Laidler, K. J. *Journal of Chemical Education*, **1984**, 61, 494.

Erreakzioa solidoaren gainazalean ematen da, bi faseen artean.<sup>21,22</sup> Bestalde akoplamendu erreakzio batean Kumada-Corriu erreakzioan katalizatzailea disoluzioan disolbatzen da eta beraz kasu honetan katalisi homogeneo bat dela esaten da.<sup>23,24</sup>



**1.3-3.Eskema. (1)** Alkinoen Lindlar katalizatzailearen bidezko hidrogenazio estereoselektiboa alkenora. Lindlar katalizatzailea erabiliz hidrogenazioa sin motakoa da, pi lotura baten aurpegia katalizatzaileara hurbiltzen da eta hidrogenazioa ia aldi berean ematen da aurpegiaren alde berean. (2) Kumada-Corriu akoplamendu erreakzio bat Pd<sup>0</sup> metalez eta Ln ligandoz (normalean n=2) osatutako konplexu batekin katalizatuz.

Katalizatzailean metalaren presentziaren arabera katalisi organometalikoa<sup>25</sup> edo organokatalitiko<sup>26, 27</sup> bereizten dira. Adibidez 1.3-3. eskeman katalizatzaile metalikoak erabili dira erreakzioetan eta bi erreakzioetan erreakzio mekanismoa aztertzean katalizatzailearen eta substratu organikoaren arteko paladio-karbono lotura bat osatzen denez katalizatzaile organometalikoak direla kontsidera daiteke.<sup>28</sup> Kimika organokatalitikoan katalizatzaile organikoez katalizatutako erreakzioak ikertzen dira.

<sup>21</sup> *Organic chemistry: structure, mechanism, and synthesis*. Ouellette, R. J., & Rawn, J. D. Elsevier, **2014**.

<sup>22</sup> García-Mota, M.; Gómez-Díaz, J.; Novell-Leruth, G.; Vargas-Fuentes, C.; Bellarosa, L.; Bridier, B.; Pérez-Ramírez, J.; López, N. *Theo. Chem. Acc.*, **2011**, *128*, 663-673.

<sup>23</sup> Organ, M. G.; Abdel-Hadi, M.; Avola, S.; Hadei, N.; Nasielski, J.; O'Brien, C. J.; Valente, C. *Chem. Eur. J.*, **2007**, *13*, 150-157.

<sup>24</sup> Yang, L. M.; Huang, L. F.; Luh, T. Y. *Org. Lett.*, **2004**, *6*, 1461-1463.

<sup>25</sup> Ma, J. A.; Cahard, D. *Angew. Chem. Int. Ed.*, **2004**, *43*, 4566-4583.


<sup>26</sup> MacMillan, D. W. *Nature*, **2008**, *455*, 304.

<sup>27</sup> Bertelsen, S.; Jørgensen, K. A. *Chem. Soc. Rev.*, **2009**, *38*, 2178-2189.

<sup>28</sup> Moss, G. P.; Smith, P. A. S.; Tavernier, D. *Pure & App. Chem.*, **1995**, *67*, 1307-1375.

## 1.4 Enamina bidezko organokatalisi asimetrikoa.

Lehen organokatalisi erreakzioa burutu zuen pertsona Willy Marckwald izan zen 1904ean, azido malonikoaren deribatu baten deskarboxilazioa burutu zuen azido 2-metilbutirikoa lortuz, bruzina katalizatzaile baten bidez, 1.4-1. eskeman ikusi daitekeen bezala.<sup>29</sup>



**1.4-1.Eskema.** Ezkerrean Willy Marckwald kimikari alemaniarrek burututako erreakzioa eta eskuinean erabilitako organokatalizatzaile hirialaren egitura.

Hala ere etekin baxua zenez eta erreakzio mota gutxietan erabili zitekeela uste zenez organokatalisiaren garapena katalisi organometalikoarekin konparatuz berandu izan zen, katalisi organometalikoa erreakzio mota gehiagorekin erabili zitekeelako. Katalisi organikoarekin lotutako artikuluak noizbehinkakoak ziren eta ez zitzairen arreta handirik eskaini 1990ko hamarkadaren bukaera arte. Katalisi organikoaren hasiera urte hauetan izan zela esan daiteke, beraren abantailak zeintzuk ziren argitaratzen hasi baitziren.<sup>30</sup> Aipagarria da 1998 eta 2008 bitartean 1500 eskuidatzi argitaratu zirela, 130 erreakzio mota baino gehiagotan erabili zitezkeenak.

Hogeigarren mendean zehar katalisi organikoak etorkizun gutxi zuela pentsatzen zen arren 1990an Yian Shi,<sup>31</sup> Scott Denmark,<sup>32</sup> Dan Yang,<sup>33</sup> eta lankideek zetona enantiopuruak erabili zitezkeela frogatu zuten alkeno sinpleen epoxidazio enantioselektibo bat katalizatzeke. Ondoren Eric Jacobsen,<sup>34</sup> Elias J. Corey<sup>35</sup> eta beraien lankideek hidrogeno loturen bidezko katalisiaren lehen adibideak deskribatu zituzten eta

<sup>29</sup> *Asymmetric Synthesis in Organophosphorus Chemistry: Synthetic Methods, Catalysis, and Applications*; Kolodiazny, O. I., Wiley-VCH, **2016**.

<sup>30</sup> *Asymmetric organocatalysis: from biomimetic concepts to applications in asymmetric synthesis*. Berkessel, A., Gröger, H. John Wiley & Sons, **2006**.

<sup>31</sup> Tu, Y.; Wang, Z. X.; Shi, Y. *J. Am. Chem. Soc.*, **1996**, *118*, 9806-9807.

<sup>32</sup> Denmark, S. E.; Wu, Z.; Crudden, C.; Matsuhashi, H. *The Journal of organic chemistry*, **1997**, *62*, 8288-8289.

<sup>33</sup> Yang, D.; Yip, Y. C.; Tang, M. W.; Wong, M. K.; Zheng, JH.; Cheung, K. K., *J. Am. Chem. Soc.* **1996**, *118*, 491-492.

<sup>34</sup> Sigman, M.; Jacobsen, E. N. *J. Am. Chem. Soc.* **1998**, *120*, 4901-4902

<sup>35</sup> Corey, E. J.; Grogan, M. *J. Org. Lett.* **1999**, *1*, 157-160.

Scott Miller<sup>36</sup> eta beraren lankideek peptido minimoen kontzeptua barneratu zuten sintesi enantioselektiboan. Horrek sintesi kimikoan katalizatzaile organiko txikiak erabili zitezkeela frogatu zuen, entzima konplexuak erabili orde. Azkenik 2000 urtean enamina<sup>37</sup> eta iminio ioiaren<sup>38</sup> bitarteko katalisia bultzatu zen.

Organokatalisiaren alorra modu osagarrian hasi zen lan egiten organometalikoarekin, katalizatzaile konplexu haukin konparatuz abantaila batzuk baitzituzten. Organometalikoekin konparatuz material biologikoetatik (proteinen aminoazido kiraletatik adibidez) lortu zitezkeen katalizatzaileak ziren, errazak manipulatzeko, merkeak, bi enantiomeroak eskuragarriak ziren, ez toxikoak eta airearekin eta urarekin egonkorrak, hots, erreakzio asko baldintza aerobikoetan eta uraren presentzian eman daitezke. Gainera orokorrean katalizatzaile organikoen berreskurapena errazagoa da.

Gaur egun jakina da organokatalisiaren garrantzia sintesi enantioselektiboan. Industrian erabiltzen diren katalizatzaile asimetriko gehienak konplexu organometalikoak diren arren organokatalisiaren garrantzia geroz eta handiagoa da, metodo organometaliko eta biologikoen aurrean hainbat abantaila dituztelako. Aipagarria da farmako batzuen sintesi enantioselektiboan ere katalizatzaile organikoak erabiltzen hasi direla.<sup>39</sup>

#### 1.4.1 Organokatalisi asimetrikoaren oinarria.

Erreakzio kimikoetan katalizatzaileek bi helburu nagusi dituzte. Alde batetik prozesua azkartzeko erabili daitezke, hau da adibidez autoetan ihes-hodietan jartzen diren Pd, Pt eta Rh metalezko katalizatzaileen helburua. Termodinamikoki ez-egonkorak diren molekula toxiko eta kaltegarrien (CO, NO<sub>x</sub>, HC hidrokarburoak) erreakzioa ahalbidetzen du molekula inerte bilakatuz (H<sub>2</sub>O, N<sub>2</sub>, CO<sub>2</sub>).<sup>40</sup> Bestalde katalizatzaileak selektiboki erabili daitezke, erreaktibo baten produktu posible guztien artean nahi dena katalizatuz, 1.3.-3. eskeman (1) gertatzen den bezala. Z edo E alkenoaren selektibotasunaz gainera zentro prokiral baten S edo R produktuetako baten formakuntza katalizatu dezakegu, 1.4.1-1. irudian ikusi daitekeen bezala. Hau da katalisi asimetrikoaren oinarria.

<sup>36</sup> Miller, S. J.; Copeland, G. T.; Papaioannou, N.; Horstmann, T. E.; Ruel, E. M. *J. Am. Chem. Soc.* **1998**, *120*, 1629–1630.


<sup>37</sup> List, B.; Lerner, R. A.; Barbas, C. F. III. *J. Am. Chem. Soc.* **2000**, *122*, 2395–2396.

<sup>38</sup> Ahrendt, K. A.; Borths, C. J.; MacMillan, D. W. C. *J. Am. Chem. Soc.* **2000**, *122*, 4243–4244.

<sup>39</sup> King, H. D.; Meng, Z.; Denhart, D.; Mattson, R.; Kimura, R.; Wu, D.; Gao, Q.; Macor, J. E. *Org. Lett.*, **2005**, *7*, 3437–3440.


<sup>40</sup> Twigg, M. V. *Catalysis Today*, **2011**, *163*, 33–41.





**1.4.1-1.Irudia.** Aurpegi prokiral baten adizio katalitikoaren mekanismo sinplea. R/S nomenklaturaren arabera lehentasun handiena 1 ordezkatzailleak duela kontsideratzen badugu, erreakzioan katalizatzaile kiral bat erabiliz R produktua lortzeko aktibazio energia txikiagoa izango da eta ondorioz hasierako molekulan adizioa  $sp^2$  karbonoaren Si aldetik emango da (Re/Si nomenklatura sistemaren arabera).

Molekula prokiral baten adizioan katalizatzailea akirala bada ez ditu bi aurpegiak bereiztuko. Horretarako organokatalisi asimetricoan katalizatzaile kiralak erabiltzen dira. Adibidez 1.4.1-eskeman adierazi den zetonen Noyori hidrogenazio katalitikoan katalizatzailea gai da karboniloaren aurpegi enantiotopikoak bereizteko. Horrela lortu nahi den enantiomeroaren arabera konplexu kiral bat edo beste erabiltzen da, konplexuak beraien artean enantiomeroak izanik.<sup>41,42</sup>



**1.4.1-1.Eskema.** Ruteniozko konplexu kiral baten bidez katalizatutako erreakzio asimetricoa.

Erreakzio asimetrico batean enantiomeroak diren bi produktu posibleen artean selekzio bat egiten bada erreakzioa enantioselektiboa da. Hala ere gerta daiteke errektiboa kirala izatea eta beraz bi produktuak beraien artean diastereoisomeroak izatea. Kasu honetan erreakzio diastereoselektiboa dela esaten da.

<sup>41</sup> Noyori, R., & Hashiguchi, S. *Acc. Chem. Res.*, **1997**, 30, 97-102.

<sup>42</sup> Gao, J. X., Ikariya, T., & Noyori, R. *Organometallics*, **1996**, 15, 1087-1089.

## 1.4.2 Organokatalisi motak.

Organokatalizatzaileak sailkatzeko erreakzioa aktibatzen moduaren arabera sailkatzea da. Esan daiteke organokatalisian nagusiki bost aktibazio mota erabiltzen direla: enamina bidezko katalisia, hidrogeno lotura bidezko katalisia, iminio ioi bidezkoa, SOMO katalisia eta kontraioi bidezko katalisia. Hauek bi taldetan sailka daitezke: lotura kobalentez aktibatzen duten katalizatzaileak (adibidez enamina bidezko katalisia) eta lotura ez kobalentez aktibatzen dutenak (adibidez hidrogeno lotura bidezko katalisia). Katalizatzaileak aktibazioa 4 kcal/mol-ko lotura baino txikiagoz aktibatzen badu ez kobalente kontsideratzen da eta 15 kcal/mol-ko energiako lotura baino handiagoa bada kobalentea deritzo.<sup>43</sup>

Aipagarria da ez dela beti sailkapen hau erabiltzen, Listek proposatuta, katalizatzailea azido/base errektibotasunaren arabera ere sailka daiteke, baina kasu honetan jorratu nahi den gaiarako komenigarriagoa da aurreko sailkapena.<sup>44</sup> Jarraian enamina bidezko katalisi kobalentea eta hidrogeno bidezko katalisi ez kobalentea azalduko dira.


Erreakzio organokatalitiko askoren oinarria katalizatzailea eta substratua lotzen dituen lotura kobalente baten sorkuntza da. Lotura hau katalizatzaile-substratu konplexua eratzeko eta mantentzeko nahiko egonkorra izan behar da baina erreakzioa bukatzean askatzeko nahiko ahula izan behar da. Horretarako nitrogenoa (primario edo sekundarioa gehienbat) duten katalizatzaileak, aminokatalizatzaileak, erabiltzen dira. Hauek substratuko karbonilo taldeekin (aldehido edo zetona) erreakzionatzean enamina<sup>45</sup> edo iminio<sup>46</sup> ioiak lortzen dira. Horrela aldehido eta zetonen  $\alpha$ ,  $\beta$  eta  $\gamma$  posizioetan erreakzio katalizatuak lortu daitezke (adibidez karbonilo  $\alpha$ ,  $\beta$ -asegabeen katalisian). Katalisia bi zatitan ematen dela kontsidera daiteke, lehenik lotura kobalentea ematen baita eta ondoren katalizatzailea beste errektibo batekin lotzen delako hidrogeno lotura edo aldarapen esterikoen bidez produktuaren estereokimika determinatuz. Jarraian 1.4.2-1 Irudian ikusi daiteke enamina bidezko katalisiaren adibide bat non amina sekundario kiral bat erabiltzen den adizio asimetrico bat burutzeko.

<sup>43</sup> D. W. C. MacMillan, *Nature*, **2008**, 455, 304-308.

<sup>44</sup> J. Seayad, B. List, *Org. Biomol. Chem.* **2005**, 3, 719-724.


<sup>45</sup> B. List, *Tetrahedron* **2002**, 58, 5573-5590

<sup>46</sup> G. Lelais, D. W. C. MacMillan, *Aldrichimica Acta* **2006**, 39, 79-87.



**1.4.2-1.Eskema.** Enamina bidezko aktibazioaren eskema. A enamina eratu. B enamina eraso enantioselektiboa, E elektrozalea izanik. C karboniloa berreskuratuz.

Bestalde katalisi ez kobalentean katalizatzaileak elektrozalea edo nukleozalea interakzio ahulekin aktibatzen du. Talde honen barruan fase transferentzia bidezko katalisia (PTC),<sup>47</sup> Bronsted base kiralen bidezko katalisia<sup>48</sup> edo hidrogeno loturen bidezko aktibazioan oinarritzen den katalisia bereizi daitezke.<sup>49</sup> Hidrogeno loturen kasuan katalizatzailearen eta substratuaren artean hidrogeno lotura bat edo gehiago eratu daitezke, horrela substratuaren elektroizentzitatea txikitzen da eta elektrozaletasuna handitzen da. Egiten den hidrogeno lotura kopuruaren arabera katalizatzailea monodentatua, bidentatua edo handiagoa izan daiteke. Mota honetako katalizatzaileen mekanismoa 1.4.2-2.eskeman ikusi daiteke.



**1.4.2-2.Eskema.** Hidrogeno loturez aktibatutako erreakzio baten mekanismoa. A hidrogeno loturak sp<sup>2</sup> karbonoaren elektrozaletasuna handitzen du. B nukleozaleak elektrozale aktibatua erasotzen du.

Idazlan hau enamina bidezko organokatalisian eta hidrogeno loturen bidezko organokatalisian zentratuko da.


<sup>47</sup> T. Hashimoto, K. Maruoka, *Chem. Rev.* **2007**, *107*, 5656-5682.

<sup>48</sup> C. Palomo, M. Oiarbide, R. López, *Chem. Soc. Rev.* **2009**, *38*, 632-653.

<sup>49</sup> M. S. Taylor, E. N. Jacobsen, *Angew. Chem. Int. Ed.* **2006**, *45*, 1520-1543.

## 1.5. Maleimiden bidezko Michael adizio erreakzioa.

Azken urteetan molekula txikien bidezko erreakzio estereoselektibo katalitikoek erabiltzeko erraztasunarengatik, toxizitate baxuarengatik, eraginkortasunagatik eta selektibotasunarengatik jakin-min handia piztu dute. Organokatalisian egon diren aurrerapen berriek erreakzio asimetriko askoren garapena sustatu dute, hauen artean zikloadizo asimetrikoa edo Michael erreakzio asimetrikoa. Erreakzioetan maleimidak dienozale bezala erabili dira zikloadizio asimetrikoetan, Michael hartzaile bezala kimika organiko estereoselektiboan eta trantsizio metalen bidezko katalisian ere. Honetaz aparte maleimidak ur-jauzi erreakzioetan (*cascade reactions*) erabili izan dira bi estereozentro lortzeko, 1.5-1. eskeman adierazten den bezala.<sup>50</sup> Erreakzio hauek sukzinimida konposatuak lortzeko modu erraz eta interesgarriak dira, sukzinimida kiralak produktu naturaletan eta botika batzuetan agertzen diren molekulak direnez hauen sintesiak interes handia du.




**1.5-1. Eskema.** Maleimidak erreakzio asimetriko desberdinetan sukzinimida kiralak lortuz. (1) Michael adizio erreakzioa. (2) Diels-Alder zikloadizio erreakzioa. (3) Bi estereozentro osatzen dituen adizio erreakzioa.

Sukzinimidak bioaktibitate handiko produktu mota berri bat bezala agertu ziren 1987an. Bertan andrimid izeneko molekula (1.5-1. irudian (A) ) isolatu zen eta aktibitate antibakterianoa zuela ikusi zuten orduraino hiltzea lortu ez ziren bakterioengan, adibidez *Staphylococcus aureus*.<sup>51</sup> Gainera *Mycobacterium tuberculosis* H37Ra bakterioaren

<sup>50</sup> Chauhan, P.; Kaur, J.; Chimni, S. S. *Chemistry—An Asian Journal*, **2013**, 8, 328-346.

<sup>51</sup> Fredenhagen, A.; Tamura, S. Y.; Kenny, P. T.; Komura, H.; Naya, Y.; Nakanishi, K.; Nishiyama, K.; Sugiura, M.; Kita, H. *Journal of the American Chemical Society*, **1987**, 109, 4409-4411.

hazkuntza eragotzen du.<sup>52</sup> Tandospirona izeneko antsiolitiko eta antidepresiboan ere aurki daiteke sukzinimidaren egitura, 1.5-1. irudian (B) ikusi daitekeen bezala.<sup>53</sup>



**1.5-1. Irudia.** (A) Eta (B) sukzinimida (gorriz) kirala duten molekula naturalak eta (C)  $\gamma$ -laktama (urdinez) duen farmakoa. (A) Andrimida, *Staphylococcus aureus* bakterioaren aurkako. (B) Tandospirona, antsiolitiko eta antidepresiboa. (C) Levetiracetam, epilepsiaren aurkako.

Sukzinimidak ere  $\gamma$ -laktamak lortzeko erabili daitezke 1.5-2. eskeman ikusten den antzera.<sup>54</sup> Horregaitik laktamen ikerketan ere garrantzitsuak dira maleimidak eta sukzinimidak. Laktametan oinarritutako farmakoak epilepsia<sup>55</sup>, HIESa<sup>56</sup>, gaixotasun neurodegeneratiboak eta depresioa<sup>57,58</sup> tratatzeko garrantzitsuak izan dira. Adibidez 1-1. irudian (C) epilepsiaren aurka erabiltzen den levetiracetam molekularen egituran  $\gamma$ -laktama bat dagoela ikusi daiteke.<sup>59</sup>

<sup>52</sup> Isaka, M.; Rugseree, N.; Maithip, P.; Kongsaree, P.; Prabpai, S.; Thebtaranonth, Y. *Tetrahedron*, **2005**, *61*, 5577-5583.

<sup>53</sup> Curtin, M. L.; Garland, R. B.; Heyman, H. R.; Frey, R. R.; Michael, R. M.; Li, J.; Pease, L. J.; Glaser, K. B.; Marcotte, P. A.; Davidsen, S. K. *Bioorganic & medicinal chemistry letters*, **2002**, *12*, 2919-2923.

<sup>54</sup> Nöth, J.; Frankowski, K. J.; Neuenswander, B.; Aubé, J.; Reiser, O. *J. Combin. Chem.*, **2008**, *10*, 456-459.


<sup>55</sup> Das Sarma, K.; Zhang, J.; Huang, Y.; Davidson, J. G. *Eur. J. Org. Chem.*, **2006**, *2006*, 3730-3737.

<sup>56</sup> Kazmierski, W. M.; Andrews, W.; Furfine, E.; Spaltenstein, A.; Wright, L. *Bioorg. & Med. Chem. Lett.*, **2004**, *14*, 5689-5692.

<sup>57</sup> Barnes, D. M.; Ji, J.; Fickes, M. G.; Fitzgerald, M. A.; King, S. A.; Morton, H. E.; Plagge, F. A.; Preskill, M.; Wagaw, S. H.; Wittenberger, S. J.; Zhang, J. *J. Am. Chem. Soc.*, **2002**, *124*, 13097-13105.

<sup>58</sup> Tang, K.; Zhang, J. T. *Neurological research*, **2002**, *24*, 473-478.

<sup>59</sup> Krauss, G. L.; Betts, T.; Abou-Khalil, B.; Bergey, G.; Yarrow, H.; Miller, A. *Seizure*, **2003**, *12*, 617-620.




**1.5-2. Eskema.**  $\gamma$ -Laktamen sintesiaren eskema sukzinimidetatik abiatuz eta hau bere baitan maleimida batetik abiatuz.

Organokatalizatzaile kiralekin lotutako abantailengatik eta sukzinimida kiralen deribatuen aplikazio farmazeutikoengatik aurrerakuntza handiak lortu dira erreakzio organokatalitiko asimetrikoan maleimidak sustatro bezala erabiliz.

### 1.5.1 Michael adizio erreakzioa.

Kimika organikoan karbono lotura bakunak eratzeko erreakzioak oso garrantzitsuak dira, molekulen bizkarrezurra eratzeko erabiltzen direlako. Sintesian zehar lotura hauek eratzea beharrezkoa da molekula handiak sintetizatu nahi badira eta horretarako Grignard (1) bezalako erreaktiboak erabili daitezke (ikusi 1.5.1-1 eskema) baina laborategian arazoak eman ditzaketen erreakzioak dira, talde funtzional batzuekin bateragarriak ez direlako edo aireko hezetasunarekin erreakziona dezaketelako beraien burua hidrolizatuz.<sup>60</sup> Horregatik laborategia beste mota bateko erreakzioak erabiltzen saiatzen da, adibidez erreakzio aldolikoa (2) edo Michael adizio erreakzioa (3).<sup>61</sup> Michael erreaktiboek ez dituzte aurreko arazoak eta laborategian errazago burutu daiteke.




**1.5.1-1. Eskema.** Karbono lotura berriak sortzeko erabili daitezkeen erreakzio batzuk: (1) Grignard erreaktiboaren eta halogenuro baten arteko erreakzioa, (2) erreakzio aldolikoa, (3) Michael adizio erreakzioa.

<sup>60</sup> *Handbook of Grignard reagents*. Silverman, G. S.; Rakita, P. E. CRC Press, **1996**.

<sup>61</sup> Sibi, M. P.; Manyem, S. *Tetrahedron*, **2000**, *41*, 8033-8061.

Michael erreakzioa Arthur Michael (1853, New York) aurkitu eta ikertu zuen 1887an.<sup>62</sup> Erreakzioa 1,4-adizio bezala edo  $\alpha$ ,  $\beta$  -karboniloetako adizio konjokatu bezala ezagutzen da (1.5.1-2 irudia **A**). Argi dago Michael erreakzioak 1,2-adizio moduko erreakzio konpetitibo bat duela. Hau da adibidez Grignard erreaktiboek karboniloekin erreakzionatzean gertatzen dena (1.5.1-2 irudia **B**).



**1.5.1-2. Eskema.** Nukleozale batek karbonilo  $\alpha,\beta$ -asegabe batean erreakziona ditzakeen lekuak. A 1,4-adizioa nukleozale ahulekin ematen da eta B 1,2-adizioa nukleozale gogorrekin.

Erregioselektibitate hau kualitatiboki erraz azaltzeko azido-baseen gogor-ahul teoria (*hard-soft acid-base or HSAB theory*) erabili izan da. Teoria honen arabera espezie kimikoak gogorrak edo ahulak eta azidoak edo baseak dira. Espezie txikiei eta oxidazio egoera edo karga partzial altuak dituztenei gogorrak deitzen zaie eta ez dira oso polarizagarriak. Bestalde espezie kimiko handiak direnak eta oxidazio maila edo karga partzial txikia dutenak ahulak dira eta polarizagarriak dira. Espezie kimikoak definitu ondoren Lewis azido-base erreakzio bat gertatzen dela kontsideratzen da eta espezie kimiko ahulak ahulekin eta gogorrak gogorrekin erreakzionatzen dute. Horrela Michael erreakzioan 1,4 adizioa espezie ahulekin emango da,  $\beta$  karbonoa ahula delako eta 1,2 adizioa espezie gogorrekin.<sup>63</sup>

Kuantitatiboki Fukuiren funtzioa erabiliz kalkula eta aurre esan daiteke molekula bateko zein lekutan emango den mota honetako erreakzioa. Fukuiren funtzioaren balioa handiagoa denean espezie ahulagoa da eta alderantziz. Funtzio honek molekularen inguruko "r" puntu bateko dentsitate elektronikoa neurtzen du eta honen arabera erreakzioaren erregiokimika determina daiteke, 1.5.1-1 ekuazioan adierazten da funtzioa.<sup>64</sup>

$$f^+(r) = \rho_{N+1}(r) - \rho_N(r)$$

**1.5.1-1. Ekuazioa.** Fukuiren dentsitate elektronikoen kalkulua non  $\rho_N$  dentsitate elektronikoa den molekula inguruko r espazioan. N elektroien zenbakia da, beraz N+1 denean anioi bat da molekula neutroaren LUMO orbitalean elektroien bat duela.

<sup>62</sup> Poon, T.; Mundy, B. P.; Shattuck, T. W. *Journal of Chemical Education*, **2002**, 79, 264.

<sup>63</sup> Ho, T. L. *Chem. Rev.*, **1975**, 75, 1-20.

<sup>64</sup> Poon, T.; Mundy, B. P.; Shattuck, T. W. *Journal of chemical education*, **2002**, 79, 264.


Funtzio honek molekularen inguruko dentsitate elektronikoa erabiltzen duenez ez da guztiz egokia karga partzialen kalkulurako eta beraz beste ekuazio hau erabiltzen da  $r$  nukleoan kokatzeko eta horrela atomoaren karga partziala zein den jakiteko. Horretarako Mullikenen populazioaren analisitik lortzen den 1.5.1-2 ekuazioa erabiltzen da.<sup>65</sup>

$$f_{Ak}^+ = q_{Ak}(N_A + 1) - q_{Ak}(N_A)$$

**1.5.1-2. Ekuazioa.** Mulliken populazioaren analisia, non  $q_{Ak}(N_A)$  Mulliken karga den  $K$  atomoan  $N_A$ -ren elektroi guztientzako.

Ekuazio hauek Michael adizioaren erregiokimika azaldu eta aurreratu dute eta horregatik azaldu dira baina arlo honek duen konplexutasuna dela-eta zer ez da gai honi buruz sakonago hitz egingo.<sup>66</sup> Honen ordez Michael erreakzioaren beste propietate batzuk azaltzen jarraituko da.

Michael erreakzioan bi espezie nagusi daudela esan daiteke. Alde batetik nukleozalea edo Michael emalea eta bestetik elektrozalea edo Michael hartzailea. Michael emaleak karbono azido bat izan ohi du eta base baten bidez desprotonatu eta erresonantziaz negatiboki kargatuta dagoen karbanioi bat lortzen da. Michael hartzailea bestalde konposatu  $\alpha$ ,  $\beta$ -asegabe bat izaten da talde erakarle bat duena. Talde erakarle honen bitartez lotura bikoitzeko elektroi dentsitatea desplazatzen da  $\alpha$  eta karbonoa partzialki positiboagoa bihurtuz. Michael hartzailea errektiboago bilakatu daiteke Lewis edo Bronsted azido baten bitartez. Ondoren Michael emaleko karbono negatiboak Michael hartzaileko karbono positiboan erasotzen du, 1.5.1-3 eskeman ikusten den bezala, kasu honetan Bronsted azido baten bitartez aktibatzen da karbonilo  $\alpha$ ,  $\beta$ -asegabea.




**1.5.1-3. Eskema.** Michael erreakzioaren eskema orokorra.

<sup>65</sup> Mulliken, R. S. *J. Chem. Phys.*, **1955**, 23, 1833-1840.

<sup>66</sup> HSAB teoriari buruzko informazio gehiago: a) Liburua: *Hard and soft acids and bases principle in organic chemistry*. Ho, T. L. Elsevier, **2012**.: b) Argitalpenak: Pearson, R. G. *Inorganica Chimica Acta*, **1995**, 240, 93-98.: Ho, T. L. *Tetrahedron*, **1985**, 41, 3-86.: Ho, T. L. *Chem. Rev.*, **1975**, 75, 1-20.



Molekula hauek ez dute zertan karbonilo asetua eta karbonilo  $\alpha$ ,  $\beta$ -asegabea izan behar. Michael emale bezala enol anioiak erabili ordeztu enamina neutroak erabili daitezke, molekula neutroak direnez beste propietate batzuk dituzte eta kasuaren arabera bata edo bestea erabili daiteke. Bestalde Michael hartzaile bezala aldehidoa, zetona, ester, amida edo nitro taldea erabili daiteke. Jarraian 1.5.1-1 irudian ikusi daitezke Michael hartzaile eta emaleen adibideak.<sup>67</sup>



**1.5.1-1.Irudia.** Ezkerrean Michael emaleak (nukleozaleak). Eskubian Michael hartzaileak (elektrozaleak).

Kontuan eduki behar da aurreko irudian (1.5.1-1.irudia) basea behar dela karboniloen  $\alpha$  posizioko karbonoa desprotonatzeko eta horrela enol bat eratzeko baina iminaren kasuan hau enolaren parekoa den ez dela baserik behar. Michael hartzaileak talde elektroerakarle bat edo EWG (*electron withdrawing group*) eduki behar dute  $\beta$  karbonoaren izaera elektrofiloa aktibatzen.

## 1.6 Kimika Konputazionala.

Ordenagailuak eta kimika lotzen dituen kimikaren alorrari kimika konputazionala deitzen zaio. Bertan kimikarekin lotutako ainbat ikerketen irtenbidea aurkitu daitezke simulazio konputazionalak erabiliz. Ordenagailu hauek fisika klasikoan, fisika kuantikoan eta mekanika estatistikoan oinarritutako kimika teorikoko kontzeptuak erabiltzen dituzte eskala molekularra ikertzeko. Honek laborategian ikertu ezin diren erreakzioen ikerketa ahalbidetzen du, erreakzioak egoera gaseosoan, disoluzioan edo solido egoeran ikertu baitaitezke. Laborategian isola ezin diren molekula ez-egonkorren edo trantsizio egoeren kimikaren ikerkuntza ere ahalbidetzen du. Ekonomikoki ere abantailak ditu, laborategian egiten diren esperimenduak erreaktibo garestien beharra eta kimikariak esperimendua egiteko denbora aurrezten da eta ordenagailuaren bidezko simulazioekin ordezkatzeko da. Normalean kimika konputazionala laborategian egin diren esperimenduak sakonago

<sup>67</sup> *Topics in Stereochemistry*, Oare, D. A.; Heathcock, C. H., John Wiley & Sons: New York, Chichester, Brisbane, Toronto, Singapore, **1991**.

aztertzeko erabiltzen den arren zenbait kasutan gertakari kimikoak auresateko ere erabili izan da.<sup>68,69</sup>

### 1.6.1 Kimika konputazionalaren oinarria.

Kimika konputazionalaren historia mekanika kuantikoaren historiarekin oso lotuta dago. XIX. mendean kimika klasikoren bidez azaltzen ziren naturako fenomeno gehienak, baina eskala molekularrean edo atomikoan azalpena ez zen hain ona. Adibidez argiaren uhin-partikula dualtasuna edo elektroiak nukleo inguruan egiten zuen orbita zirkularraren azalpena ezin zen fisika klasikoaren bidez azaldu. Ondorioz XX. mendearen hasieran kontzeptu berriak zabaltzen hasi ziren eta fisika kuantikoaren oinarriak finkatu ziren. Mende honetako hogeigarren hamarkadan zehar mekanika kuantikoaren postulatuak definitu ziren, hauen artean Schrödingerren ekuazioak aurrerakuntza handia izan zen. Schrödingerrek partikula baten mugimendua uhin baten mugimendua kontsideratzen zuen. Horrela newtonen dinamikaren legeekin konparatuz ikuspuntu oso desberdin baten bidez partikula mikroskopikoen mugimendua matematikoki azaltzen hasi ziren. Ekuazio hau 1.6.1-1 ekuazioan ikusi daiteke.<sup>70</sup>

$$\hat{H}\Psi(q, t) = i\hbar \frac{\partial}{\partial t} \Psi(q, t)$$

**1.6.1-1.Ekuazioa.** Schrödingerren ekuazioak uhin-funtzioak denborarekin jasaten duen aldaketa azaltzen du.  $\hat{H}$  operadore hamiltondarra, uhin funtzioa ( $q$  posizio eta  $t$  denboraren menpekoa)  $\partial/\partial t$  denborarekiko deribatu partziala, Plancken konstante laburtua edo Dirac-en konstantea eta  $i$  unitate irudikaria.

Hala ere honek ez du egoera egonkor bat errepresentatzen. Horretarako  $\hat{H}$  eta hamiltondarra denboraz independentea izatea behar da. Horrela egoera estazionario baten funtzio espaziala hamiltondarraren funtzio propioa da,  $E$  konstante balore propioarekin. Aipatutako  $E$  hau sistemaren egoeraren energia da eta horrela sistema baten energia kalkulatu dezakegu eta uhin funtzioa energiarekin erlazionatu, 1.6.1-2. ekuazioan agertzen den bezala.

$$\hat{H}\Psi(q) = E\Psi(q)$$

**1.6.1-2.Ekuazioa.** Denborarekiko independentea den Schrödingerren ekuazioa. Sistema baten energia kalkulatu daiteke.  $\hat{H}$  operadore hamiltondarra, uhin funtzioa ( $q$  posizioaren menpekoa),  $E$  uhin funtzioarekin erlazionatutako energia.

<sup>68</sup> Smith, S. J.; Sutcliffe B. T., *Reviews in Computational Chemistry* **1997**, 70, 271 - 316.

<sup>69</sup> *Computational organic chemistry*. Bachrach, S. M. John Wiley & Sons, **2014**.

<sup>70</sup> *Neither physics nor chemistry: A history of quantum chemistry* Gavroglu, K.; Simoes, A. MIT Press, 2011.

Ekuazio hau molekula batera zabaldu daiteke non nukleo bakoitzeko eta elektroio bakoitzeko uhin funtzio bat egongo den. Honek *Schrödingerren* ekuazioaren konplexutasuna handitzen du 1.6.1-3.ekuazioan ikusi daitekeen bezala. Gainera nukleo edo elektroien posizio bakoitzak hiru koordenatu espazial edukiko ditu.

$$\hat{H}\Psi(R_1, R_2, \dots, R_N, r_1, r_2, \dots, r_n) = E\Psi(R_1, R_2, \dots, R_N, r_1, r_2, \dots, r_n)$$

**1.6.1-3.Ekuazioa.** Molekula baten *Schrödingerren* ekuazioaren errepresentazioa.  $H$  hamiltondarra,  $\Psi$  uhin funtzioa,  $R$  nukleoaren posizioa,  $r$  elektroien posizioa,  $N$  nukleo kopurua,  $n$  elektroio kopurua.

Uhin funtzio hauetaz gainera hamiltondar molekularrean kontuan eduki behar diren indarrak direla eta konplexutasuna handitu egiten da. Elektroio-elektroio, protoio-protoio eta elektroio-protoio arteko interakzioak kontuan hartzeak matematikoki ekuazioaren soluzioa aurkitzea ezinezkoa egiten du, ikusi 1.5.1-4 ekuazioa.

$$\hat{H} = \hat{T}_N(R_N) + \hat{T}_e(r_n) + \hat{V}_{Ne}(R_N, r_n) + \hat{V}_{ee}(r_n) + \hat{V}_{NN}(R_N)$$

**1.6.1-4.Ekuazioa.** Hamiltondar molekularrearen espresioa.  $T_N$  nukleoaren energia zinetikoaren operadorea ( $N$  nukleoaren menpekhoa),  $T_e$  elektroioaren energia zinetikoaren operadorea ( $n$  elektroioaren menpekhoa),  $V_{Ne}$  nukleoaren eta elektroioaren arteko erakarpenaren energia potentzialaren operadorea,  $V_{ee}$  elektroioaren arteko errepulzioaren energia potentzialaren operadorea.  $V_{NN}$  nukleoaren arteko errepulzioaren energia potentzialaren operadorea.

Aurreko hamiltondarra duen *Schrödingerren* ekuazio molekularrearen soluzioa aurkitzeko Born-Oppenheimer hurbilketa bidez elektroio eta nukleoaren mugimenduak desakoplatuta daudela suposatzen da eta honek *Schrödingerren* ekuazioa ekuazio elektronikoa eta nuklearrean banatzea ahalbidetzen du, 1.6.1-5 ekuazioan eta 1.6.1-6 ekuazioan ikusi daitekeen bezala.

$$\{\hat{T}_e(r_n) + \hat{V}_{Ne}(R_N, r_n) + \hat{V}_{ee}(r_n)\}\phi_{el.}(R_N, r_n) = E_{el.}(R_N)\phi_{el.}(R_N, r_n)$$

**1.6.1-5.Ekuazioa.** Ekuazio elektronikoa errepresentazioa. Matematikoki soluzioa aurkitu daiteke  $E_{el.}$  edo energia elektronikoa kalkulatzeko.  $\phi_{el.}$  Uhin funtzio elektronikoa.

$$\{\hat{T}_N(R_N) + E_{el.}(R_N) + \hat{V}_{NN}(R_N)\}\phi_{Nukl.}(R_N) = E\phi_{Nukl.}(R_N)$$

**1.6.1-6.Ekuazioa.** Ekuazio nuklearrearen errepresentazioa. Aurreko ekuazioan energia elektronikoa kalkulatu ondoren  $E$  kalkulatu daiteke, hau da, molekularren energia totala.  $\phi_{Nukl.}$  Uhin funtzio nuklearra.

Ekuazio hauen bitartez molekula baten egoera baten energia kalkulatu daiteke. Molekulako nukleoaren posizio optimoena zein den kalkulatzeko nukleoaren potentzial gainazala kalkulatu da. Funtzio honek nukleoaren posizioa egonkorra den ala ez adierazten du. Ekuazio honen errepresentazioa 1.5.1-7 ekuazioan ikusi daiteke.

$$U(R_N) = E_{el.} + \hat{V}_{NN}$$

**1.6.1-7. Ekuazioa.** Nukleoaren potentzial gainazala ( $U$ ). Nukleoak sentitzen duen energia potentziala adierazten du. Energia elektronikoa totala ere deitzen zaio. Nukleoaren posizio bakoitzarekin ( $R_N$ ) aldatzen den balioa da.

Funtzio honen minimoak molekularen egoera egonkor bat adierazten du. Kalkulu hauetan oinarritzen da Hartree-Fock teoria eta honen bitartez uhin funtzio multielektronikoan oinarrituz sistema sinpleak deskribatu daitezke. Hala ere nabarmena da kalkulu hauek oso konplexuak direla eta molekula handien energiak kalkulatzeko denbora asko behar dela. Horregatik lan honetan Dentsitatearen funtzionalaren teoria edo DFT (*Density Functional Theory*) erabili da zehaztasun handi eta kalkulu abiadura azkarrarengatik.<sup>71</sup>

## 1.6.2 Dentsitatearen Funtzionalaren Teoria.

Aurreko puntuan azaldu da nola kalkulatu den molekula baten energia elektronikoa (ikusi 1.6.1-5 ekuazioa). Energia elektronikoa uhin-funtzioa elektroien bakoitzaren hiru aldagaien menpekoa da, hau da,  $x$ ,  $y$  eta  $z$  koordenatuen menpekoa. Honek kalkulu matematikoa asko zailtzen du, uhin funtzioak  $3n$  aldagai dituelako, ( $n$  elektroien kantidadea izanik). Hau konpondu daiteke uhin funtzioa erabili ordez elektroien dentsitatea erabiltzen bada kalkulua burutzeko. Elektroien dentsitatea  $3$  aldagaien menpekoa da, beraz asko errazten da kalkulu matematikoa.<sup>72</sup>

Dentsitatearen funtzionalaren teoriaren oinarriak Hohenberg eta Kohn-en teoremek finkatu zituzten.<sup>73</sup> Hauen arabera sistema multielektroniko baten oinarritzko egoera dentsitate elektronikorekin erlazionatuta dago eta oinarritzko egoeraren dentsitate elektronikoa sistema elektronikoa osoaren informazioa du. Honetaz aparte dentsitate elektronikoa teoria bariatzionala betetzen duela demostratu zuten eta ondorioz kalkulatuak dentsitate elektronikoa benetakoaren berdina edo handiagoa izango da.

<sup>71</sup> *Essentials of Computational Chemistry: Theories and Models*. C.J. Cramer. Wiley: Chichester, **2004**.

<sup>72</sup> *A Primer in Density Functional Theory*, C. Fiolhais, F. Nogueira, M. Marques, Springer, **2003**

<sup>73</sup> Hohenberg, P.; Kohn, W. *Phys Rev Phys Rev*, **1964**, *140*, A1133.

Hohenberg eta Kohn ikertzaileek proposatutako teoriak arazo bat zuten, dentsitate elektronikoa sistemaren oinarritzko egoerarekin erlazionatzean energia zinetikoa duen funtzional unibertsalaren balioa jakin behar zen, eta honen balioa ezezaguna da. Hau konpontzeko Kohn eta Sham ikertzaileek aldarapen elektronikoa arbuia zuten eta elektroiei bakoitzak osatzen zuten orbitalez osatutako Slaterren determinantearen bidez energia zinetikoa partikula bakoitzaren energia zinetikoen batura bezala espresatzeko gai izan ziren.<sup>74</sup> Elektroien arteko elkarrekintza kontuan ez hartzean hurbilketa bat egin behar da eta elektroien errepulsiorako eta trukaketa elkarrekintzarako funtzional desberdinak erabiltzen dira.<sup>75</sup>

Hurbilketa hauek egin diren arren ez da guztiz korrelazio elektronikoaren energiaren eta trukaketa energiaren balioa ezagutzen. Hauek elektroien elkarrekintza kuantikoari dagozkie, lehenengo kasua errepulsio kulombikoari eta bigarrena Pauliren spin bereko elektroien arteko eskusio printzipioari. Hau konpontzeko B3LYP (*Becke, 3-parameter, Lee-Yang-Parr*) motako metodo hibridoak erabiltzen dira.<sup>76</sup>

Hurbilketak egin diren arren dentsitatearen funtzionalaren teoriak zailtasunak ditu elkarrekintza molekularrak ondo deskribatzeko. Dispersio indarrak ez ditu oso ondo definitzen, ondorioz DFTaren prezisioa txikia da dispersio indarrez menderatutako sistemetan. Kasu hauetan BLYP-D3 funtzionala erabiltzen da. Funtzional honek dispersioarekin erlazionatutako zuzenketak ditu eta emaitza onak lortzen dira hidrogeno loturez osatutako sistemetan.<sup>77</sup>

### 1.6.3 Kalkulu motak.

Aurreko teorian oinarrituz hainbat kalkulu mota egin daitezke baina horretarako erreakzio batean energiaren aldaketa nola gertatzen den azaldu behar da. Azalpena 1935ean proposatu zen: trantsizio egoeraren teoria.<sup>78,79</sup> Teoria honen aurretik Arrheniusen ekuazio enpirikoa (ikus 1.3-3. eskema) erabiltzen zen erreakzioen abiadura azaltzeko, mekanismoa azaldu gabe. Horregatik Arrheniusen ekuazioko zenbait aldagai aurrerago azaldu ziren, adibidez  $A_e$  (aktibazio energia) edo  $A$  (talka frekuentzia eta partikulen arteko

<sup>74</sup> Sham, L.J.; Kohn, W.; *Phys. Rev. B*, **1966**, *145*, 561.

<sup>75</sup> Perdew, J. P.; Ruzsinszky, A.; Tao, J.; Staroverov, V. N.; Scuseria, G. E.; Csonka, G. I. *J. Chem. Phys.* **2005**, *123*, 062201


<sup>76</sup> Becke, A. D. *Phys. Rev. A*, **1988**, *38*, 3098.

<sup>77</sup> W. Hujo, S. Grimme, *Phys. Chem. Chem. Phys.* **2013**, *13*, 13942-13950

<sup>78</sup> Laidler, K.; King, C, *J. Phys. Chem.*, **1983**, *87*, 2657.

<sup>79</sup> Laidler, K.; King, C, *The chemical intelligencer* **1998**, *4*, 39.

orientazioa kontuan hartzen dituen faktore aurre-esponentziala).<sup>80</sup> Teoria honen arabera errektiboek trantsizio egoera (TS) ez-egonkor bat zeharkatu behar dute produktuetan transformatzeko. Trantsizio egoera honen energiaren arabera erreakzioa azkarrago edo polikiago gertatuko da. Erreakzioaren aktibazio energiak ( $A_e$ ) trantsizio egoeraren eta errektiboaren arteko energia diferentzia adierazten du, bi egoeretako energien kenketa da, eskematikoki 1.6.3-1 irudian ikusi daiteke.



**1.6.3-1.Eskema.** Trantsizio egoeraren teoriaren arabera erreakzio mekanismoa. S substratua P produktua, TS trantsizio egoera,  $A_e$  erreakzioaren aktibazio energia, E erreakzioaren energia.

Aipatu den bezala substratu eta produktua egonkorak dira eta energiaren funtzioaren minimoan daude. Bestalde trantsizio egoera energia funtzioaren maximo bat da, ezegonkorra delako. Kalkulu konputazionalak egitean kontuan eduki behar da molekularen izaera energetikoki egonkorra edo ezegonkorra den jakiteko. Ondoren kalkulu mota batzuk azalduko dira:

- Optimizazio kalkulua: Molekularen energia minimoa aurkitzen du, hau da, konformazio egonkorrena aurkitzen saiatzen da. Kontuan eduki behar da ez dela gai minimo total eta minimo lokal bat bereizteko, hots, konformazio egonkorrak aurkitzen dituen arren ez da gai egonkorrena aurkitzeko. Beraz ikerlaria gai izan behar da kalkulu honen emaitzak onak edo txarrak diren interpretatzeko. Adibidez ziklohexanoan ez da gai aulki konformaziotik abiatuz txalupa konformazioa kalkulatzeko, horretarako molekularen geometria konformazionala aldatu behar du ikerlariak.
- ModRedundant kalkulua: Optimizazio kalkulua antzeko kalkulua izan arren ikerlariari loturak, angeluak edo angelu diedroak finko ipintzeko aukera ematen dio. Horrela gai da finkatu den zatia izan ezik molekularen

<sup>80</sup> *Transition State Theory and Related Topics. In Modern Physical Organic Chemistry* University Eric V. Anslyn and Dennis A. Dougherty. Science Books: **2006**

gainerako zatia optimizatzeko. Kalkulu hau TS kalkulua egin baino lehen erabiltzen da, TS-an molekula TS-aren egoerara hurbiltzeko.

- TS kalkulua: Trantsizio egoera bat aurkitu nahi denean energiaren minimoa kalkulatu ordez maximo bat kalkulatu behar da. Horretarako aurretik ModRedundant bidez fijatu den lotura, angelua edo angelu diedroa mantenduz molekularen gainerako zatia optimizatzen da TS-aren kalkulua errazteko.
- IRC kalkulua: Batzuetan TS kalkuluan lortzen den emaitza interpretatzean ez da argi ikusten TS-a zein erreakziori dagokion. Ordenagailuan ikusten den molekularen trantsizio egoerako mugimendua txikia denean gertatzen da. Hau konpontzeko IRC edo *intrinsic reaction coordinate* erabiltzen da energiaren maximoaren inguruan molekularen geometrian gertatzen dena ikusteko. Bi kalkulu mota daude, batak TS-tik produktura doan egoera deskribatzen du eta besteak TS-tik substratura doana.
- SP kalkulua: SinglePoint kalkuluaren bitartez molekularen energia elektronikoaren balore zuzendua kalkulatu da. Aurreko kalkulu guztiek ez dute kontuan hartzen molekularen ingurunea, egoera guztiak hutsunean edo gas fasean daudela suposatuta dira. Disolbatzailearen efektua ekuazioetan sartzeko hurbilketak egiten dira eta permitibitate elektrikoaren bidez energia elektroniko zuzendua kalkulatu da.<sup>81</sup>

Kalkulu hauen bitartez eta trantsizio egoeraren teoria jarraituz erreakzio mekanismo baten izaera sakonago ikertu daiteke. Erreakzio askok trantsizio egoera bat eduki ordez, hau da, erreakzio kontzertatuak izan ordez, trantsizio egoera bat baino gehiago eduki dezakete. Trantsizio egoera bakoitza energiaren funtzioaren maximo bat da, beraz bi trantsizio egoera batetik bestera pasatzeko matematikoki beharrezkoa da gutxienez minimo bat egotea. Mekanismoaren ikerkuntzan kontuan hartu behar dira TS posibleak zeintzuk izan daitezkeen.

---


<sup>81</sup> J. Tomasi, B. Mennucci, R. Cammi, *Chem. Rev.* **2005**, *105*, 299-3094.





## 2. Aurrekariak.

Ikerketa lan honetan Alicanteko unibertsitateko zientzien fakultateko kimika organikoko departamenduarekin elkarlanean aritu da. Bertako R. Chinchilla<sup>82</sup> katedradunak eta beraren ikerketa taldeak sintesi asimetriko organokatalitikoaren arloan egindako ikerketa baten ondorioz E. Gomez-Bengoa<sup>83</sup> doktorearekin harremanetan jarri dira eta UPV/EHU eta Alicanteko taldeen kolaborazioaren bidez erreakzioaren mekanismoa aztertu da. Honen ondorioz, artikulu bat argitaratu da *Molecules* aldizkarian.<sup>84</sup>

Laborategian R. Chinchillaren taldeak 2-1.taulan ikusten den maleimida (**2**) prokiral batetik abiatuz erreakzio organokatalitiko baten bidez sukzinimida (**4**) kiralak lortu zituzten katalizatzaile bezala amina-salizilamida (**3**) deribatu bat erabiliz.

**2-1.Taula.** Erreakzioen eskema orokorra. Emaitza esperimentalak, Alicanteko unibertsitateko Chinchilla ikerketa taldean lortu dira.



Erreakzio zenbakia	R taldea	Disolbatzailea	Etekin (%)	ee (%)
1	 <b>3</b>	Tolueno	98	94
2	 <b>4</b>	Tolueno	98	87
3	 <b>5</b>	Tolueno	98	67
4	 <b>5</b>	Kloroformo	97	86

<sup>82</sup> chinchilla@ua.es (R.C.)

<sup>83</sup> enrique.gomez@ehu.es (E.G.-B.)

<sup>84</sup> Torregrosa-Chinillach, A., Moragues, A., Pérez-Furundarena, H., Chinchilla, R., Gómez-Bengoa, E., Guillena, G. *Molecules*, **2018**, *23*, 3299.



Erreakzioen etekin altuak zirela-eta katalisiaren mekanismoa aztertzea interesgarria zen etekin altua eta purutasun enantiomerikoa azaltzeko. Laborategian mekanismoa espermentalki ikertzea ez da batere erraza, bitartekariak isolagaitzak eta trantsizio egoerak detektaezinak direlako. Horregatik E. Gomez-Bengoia eta bere taldearekin kontaktuan jarri ziren metodo konputazionalak duten abantaila ikusita.

Alicanteko lankideek laborategian lortutako datuekin bete den 2-1.taula izan da ikerkuntza konputazionalaren oinarria. Lau erreakzioetan etekinak antzekoak diren arren purutasun enantiomerikoan diferentzia handiak daude, **1**, **2** eta **3** erreakzioetan katalizatzailearen R taldearen araberakoa da aldaketa hau **3** eta **4** kasuetan bestalde disolbatzailearen araberakoa da. Kimika konputazionalan R talde desberdinen eta disolbatzailearen efektua ikertu daiteke.

### 3. Helburua.

Ikerketa lan honetan kalkulu konputazionalen bidez eta DFT metodoan oinarritutako software bat erabiliz 2-1.taulan agertzen diren lau Michael erreakzio enantioselektibo aztertuko dira eta jarraian aipatutako helburuak lortzen saiatuko da:

- Erreakzio mekanismoaren deskribapen zehatza egingo da erreakzioan parte hartzen duten errektibo, tartekari eta trantsizio egoeren egitura tridimentsionala eta beraien arteko energiak aztertuz eta baita hidrogeno loturek erreakzioan duten garrantzia ikusiz.
- Erreakzio bakoitzaren enantiomero sobera (ee%) azalduko da Arrheniusen ekuazioan oinarrituz eta erreakzio bakoitzean bi enantiomeroen sorkuntzarako aktibazio energiak konparatuz.
- Katalizatzailearen R taldearen (2-1.taula) aldaketak purutasun enantiomerikoan duen eragina aztertu eta eztabaidatuko da.
- Disolbatzailearen izaerak erreakzioaren purutasun enantiomerikoan duen aztertu eta eztabaidatuko da.

Ikerketa lanaren helburu hauetaz gainera lan idatzian informazio guztia argi azalduko da: sarreran gaia ulertzeko beharrezkoak diren oinarriak argitu, ikerketa lanaren prozeduraren ulermena erraztu eta egilea bukaeran azalduko diren ondorioetara nola iritsi den jakiteko jarraitu diren pausoak azalduko da.

## 4. Zati esperimentalak.

### 4.1 Erabilitako metodoak.

Kalkuluak Gaussian 16 programan<sup>85</sup> burutu dira. Programa hau DFT metodoan oinarritzen da eta molekulen energia elektronikoa kalkula dezake hartree ( $E_h$ ) unitateetan (energiaren unitate atomikoa). Ondoren hartree unitate bat 627,5 Kcal/mol direnez zenbakiak unitatez alda ditzakegu eta balioa Kcal/mol unitateetan kalkulatu. Molekulen egitura tridimentsionala, frekuentzia bibrationalak eta beste hainbat propietate ere kalkula ditzake egoera desberdinetan, adibidez disolbatzaile desberdinen presentzian. Programa hau Leioako UPV/EHUko Ikerkuntzari Zuzendutako Informatikako Zerbitzu Orokorreko (IZO-SGI) Arina klusterra erabili da. Kluster bat beraien artean sare baten bidez lotuta dauden ordenagailu multzoa da horrela indar eta errendimendu handiagoa izateko.

Molekulen optimizazioa lortu nahi izan denez eta ikertutako molekulek metalik ez dutenez B3LYP funtzional hibridoa (Becke Three Parameter Hybrid Functional) erabili da DFT teoriaren barruan. Honekin batera 6-31G\*\* base gaussiarra erabili da kalkuluaren maila simple baterako.

Gaussian 16 erabiltzeko Arina klusterreko programak eta baita editore eta irudikatzaile molekularrak ere. Jarraian bakoitza nola eta zertarako erabili den azalduko da.


- Avogadro:<sup>86</sup> Editore eta irudikatzaile molekular bat da. Bertan molekularak marraztu daitezke hiru dimentsioetan (ikusi 4.1-1.irudia A). Programa hau gai da molekulen oinarrizko konformazioak kalkulatzeko prezisio handirik gabe (ikusi 4.1-1.irudia B). Optimizazio hau loturen distantziaren eta

---

<sup>85</sup> M. J. Frisch, G. W. Trucks, H. B. Schlegel, G. E. Scuseria, M. A. Robb, J. R. Cheeseman, G. Scalmani, V. Barone, B. Mennucci, G. A. Petersson, H. Nakatsuji, M. Caricato, X. Li, H. P. Hratchian, A. F. Izmaylov, J. Bloino, G. Zheng, J. L. Sonnenberg, M. Hada, M. Ehara, K. Toyota, R. Fukuda, J. Hasegawa, M. Ishida, T. Nakajima, Y. Honda, O. Kitao, H. Nakai, T. Vreven, J. A. Montgomery, Jr., J. E. Peralta, F. Ogliaro, M. Bearpark, J. J. Heyd, E. Brothers, K. N. Kudin, V. N. Staroverov, R. Kobayashi, J. Normand, K. Raghavachari, A. Rendell, J. C. Burant, S. S. Iyengar, J. Tomasi, M. Cossi, N. Rega, J. M. Millam, M. Klene, J. E. Knox, J. B. Cross, V. Bakken, C. Adamo, J. Jaramillo, R. Gomperts, R. E. Stratmann, O. Yazyev, A. J. Austin, R. Cammi, C. Pomelli, J. W. Ochterski, R. L. Martin, K. Morokuma, V. G. Zakrzewski, G. A. Voth, P. Salvador, J. J. Dannenberg, S. Dapprich, A. D. Daniels, Ö. Farkas, J. B. Foresman, J. V. Ortiz, J. Cioslowski, and D. J. Fox.; *Gaussian 09.*, Revision A.03., Gaussian, Inc., Wallingford CT, **2009**.


<sup>86</sup> Hanwell, M. D., Curtis, D. E., Lonie, D. C., Vandermeersch, T., Zurek, E., & Hutchison, G. R. *Journal of cheminformatics*, **2012**, 4, 17.

aldarapen esterikoen araberakoa da eta ez ditu hidrogeno loturak edo beste interakzioak kontuan hartzen. Behin molekula bat marraztu ondoren beraren koordinatu kartesiarrak erabiltzen dira aurrerago Gaussian 16 programaren kalkuluak atomoen kokapenaren berri izan dezan (ikusi 4.1-1.irudia C). Garrantzitsua da azpimarratzea optimizazioa egiten denean ez dela konformazio egonkorrena lortzen baizik eta ikerlariak marraztu duen molekularen egitura antzekoa duen konformazio bat. Konformazio egonkorrena eta energiaren minimo totala kalkulatzeko Gaussian 16 erabili da.




**4.1-1.Irudia.** Avogadro programan eteno molekularen koordinatu kartesiarrak lortzeko pausoak.

- X2Go: Ordenagailu pertsonala Arina klusterrarekin lotzea beharrezkoa da kalkuluak klusterrera bidaltzeko eta ondoren honek kalkuluak burutzeko. Horretarako X2Go programak urrutiko idazmahai edo tabuladore baten bidez aukera ematen du Arina klusterrarekin harremanetan jartzeko komando batzuen bitartez. Hau 4.1-2. Irudian ikusi daiteke, pribatasunagatik erabiltzailearen izena izkutatatu da.




4.1-2. Irudia. X2Go programa eta honi esker lortzen den tabuladorea. (Badaezpada erabiltzailearen izena estali da).

- **Molden:** Molekulen estruktura atomiko eta elektronikoak prozesatzen dituen programa da. Arina klusterrean dago, beraz ez da ordenagailuan deskargatu behar. Gaussian 16 programak egindako kalkuluaren emaitzak koordinatu kartesiar eran bidaltzen dira ordenagailura. Emaitza hauek ondo interpretatzeko Molden programak emaitzetako koordinatuak fisikoki irudikatzen ditu eta ikerlariaren emaitzen ulermena hobetzen du. Kalkulu motaren arabera funtzio desberdinak irudikatu ditzake, adibidez orbitalen dentsitate elektronikoa ikusi daiteke edo trantsizio egoera baten mugimendua nolakoa den ere. Gaussian 16 programak optimizazio kalkulu bat burutzean kalkuluaren prozesu guztia bidaltzen du emaitza bezala, ez du bakarrik molekula optimizatuaren geometriaren informazioa. Beraz Ikerlariak optimizatutako molekularen koordinatuak behar baditu ".pdb" artxibo bat bezala gorde behar du.



**4.1-3.Irudia.** Metil ioduroaren optimizazio kalkulu baten emaitza Molden programan irudikatua.

- FileZilla: Molden programaren bidez gorde den ".pdb" artxiboa Arina klusterrean dago. Avogadro programaren bidez ".pdb" artxiboa irekitzeko klusterretik ordenagailura deskargatu behar da eta horretarako dohainikako softwarea duen FileZilla programa erabili da. Honek klusterreko artxiboak eta ikertzailearen ordenagailukoak harremanetan jartzen ditu 4.1-4.irudian ikusi daitekeen bezala.



**4.1-4.Irudia.** FileZilla progra. Ezkerrean Arinako klusterrean dauden artxiboak. Eskuinean ordenagailukoak. (Erabiltzailearen izena eta ordenagailuko eduki pertsonala izkutatu da).

Lan hau burutzeko aplikazio hauek erabili diren arren ez dira beharrezkoak, beste ikertzaile batzuek metodo desberdinak erabiltzen dituzte, adibidez FileZilla erabili ordez GaussView programa erabili daiteke. Lan idatzian molekula marrazteko beste programa

batzuk ere erabili direla aipatu behar da, adibidez CYLview<sup>87</sup> (molekulak hiru dimentsioetan marrazteko) edo ChemDraw (erreakzioak bi dimentsioetan marrazteko).

Aurretik azaldutako X2Go programa Arina klusterrarekin komunikatzeko input/output edo I/O bidez komunikatzen da, hau da, ordenagailuan input bat idazten da eta X2Go programak Gaussian 16 programa duen Arina klusterrera agindu bat bidaltzen du. Kalkulua bukatzen denean Arina klusterrak ordenagailura kalkuluaren emaitza duen output artxiboa bidaltzen du eta hau Molden bidez interpretatzen da (ikusi 4.1-1.eskema).



4.1-1.Eskema. Input/Output sistemaren azalpen eskematikoa.

Input artxiboak Gaussian 16 programak kalkulua burutzeko behar duen informazio guztia eduki behar du eta ".com" batez bidaltzen dira. Adibidez 4.1-5.irudian ikusi daiteke egin nahi den kalkulu mota, zein funtzional erabili nahi den, base gaussiarra, molekularen karga totala, spinaren multiplizitatea eta Avogadro programan lortu diren eta 4.1-1.irudia azaldu diren molekularen atomo bakoitzaren koordinatu kartesiarrak.

Kalkuluaren tamaina maximoa

Kalkulua egiteko erabiliko diren prozesadore kopuruak

Funtzionala

Base gaussiarra

Molekularen karga

Kalkulu mota (kasu honetan optimizazioa)

Spinaren multiplizitatea

Molekulako atomo bakoitzaren koordinatu kartesiarrak

```

File Edit View Bookmarks Settings Help
$mem=7520mb
$nprocshared=8
#b3lyp(6-31G*)opt freq
Title
0 1
C -5.13800 -0.47400 -0.27500
C -3.73400 -0.35000 0.24700
C -3.13700 0.99400 -0.17900
H -3.10100 1.07700 -1.28700
H -2.10600 1.09900 0.22000
H -3.75200 1.82800 0.22200
C -2.88100 -1.51000 -0.27500
H -3.74500 -0.39300 1.35900
H -1.84700 -1.43400 0.12400
H -2.83800 -1.50000 -1.38500
H -3.31200 -2.47900 0.05800
O -6.07600 -0.59900 0.49600
H -5.32600 -0.45200 -1.34400
  
```

4.1-5.Irudia. Input artxibo baten adibidea.

<sup>87</sup> CYLview, 1.0b; Legault, C. Y., Université de Sherbrooke, 2009 (<http://www.cylview.org>)

Egin nahi izan diren kalkuluaren arabera input plantila desberdinak erabili dira. Egin diren kalkulu garrantzitsuenen inputen ereduak 4.1-6.irudian azaldu dira. Bertan ikusi daiteke kalkuluaren arabera erabili den funtzionala eta base gaussiarra ere aldatu dela. ModRedundant (mr) kalkuluaren kasuan B, A eta D zenbakiek *bond*, *angle* eta *dihedral* esan nahi dute. Bertan finkatu nahi diren atomoak adierazi behar dira.

<pre> <b>opt</b> File Edit View Bookmarks Settings Help %mem=7520mb %nprocshared=8 \$RunGauss #b3lyp/6-31G** opt freq  Title 0 1 ~ ~ </pre>	<pre> <b>mr</b> File Edit View Bookmarks Settings Help %mem=7520mb %nprocshared=8 \$RunGauss #b3lyp/6-31G** opt=modredundant  Title 0 1 ~ B 1 2 F A 1 2 3 F D 1 2 3 4 F ~ </pre>
<pre> <b>ts</b> File Edit View Bookmarks Settings Help %mem=7520mb %nprocshared=8 \$RunGauss #b3lyp/6-31G** opt=(calcFC,TS,NoEigenTest) freq  Title 0 1 ~ ~ </pre>	<pre> <b>sp</b> File Edit View Bookmarks Settings Help %mem=7520mb %nprocshared=8 \$RunGauss #m062x/def2tzvpp scrf(iefpcm,solvent=toluene)  Title 0 1 ~ ~ </pre>

**4.1-6.Irudia.** Optimizazio (opt), ModRedundant (mr), TransitionState (ts) eta SinglePoint (sp) kalkuluaren inputen plantilak.

SinglePoint kalkuluan disolbatzailearen arabera inputa aldatuko da, 4.1-6.irudian adibide bezala toluenoa erabili den arren lan honetan kloroformoa ere erabili da.<sup>88</sup>

Aipatu beharra da ts kalkulua egin ostean IRC kalkulu bat egin behar dela, trantsizio egoera aztertzen ari garen erreakzioari dagokion ikusteko. Sarreran aipatu den bezala IRC kalkuluak 1.6.3-1.eskeman ikusten den ts egoeratik substraturako edo produkturako molekularen egoerak kalkulatzeko ditu. Trantsizio egoera bakoitzarentzat bi IRC kalkulu daude, bata substratura gerturatzen dena eta bestea produktura. Plantila bat *forward* da eta

<sup>88</sup> <http://gaussian.com/scrf/?tabid=7>



bestea reverse eta bakoitzarentzako 4.1-7. irudian adierazten diren bi plantilak erabili daitezke.

#### IRC kalkulua: reverse


<pre> File Edit View Bookmarks Settings Help %mem=7520mb %nprocshared=8 \$RunGauss #b3lyp/6-31G** irc=(reverse,CalcFC,Maxpoints=150,recalc=10,maxcycle=300,stepsize=10  iop(1/108--1)  Title 0 1 </pre>	<pre> File Edit View Bookmarks Settings Help %mem=7520mb %nprocshared=8 \$RunGauss #b3lyp/6-31G** irc=(reverse,CalcFC,Maxpoints=100)  Title 0 1 </pre>
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

#### IRC kalkulua: forward

<pre> File Edit View Bookmarks Settings Help %mem=7520mb %nprocshared=8 \$RunGauss #b3lyp/6-31G** irc=(forward,CalcFC,Maxpoints=150,recalc=10,maxcycle=300,stepsize=10  lop(1/108--1)  Title 0 1 </pre>	<pre> File Edit View Bookmarks Settings Help %mem=7520mb %nprocshared=8 \$RunGauss #b3lyp/6-31G** irc=(forward,CalcFC,Maxpoints=100)  Title 0 1 </pre>
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

**4.1-7.Irudia.** IRC kalkulua, goran reverse eta beheran forward. Kasu bakoitzean bi plantila mota erabili dira.

Jarraian kalkulua klusterrera bidaltzen da prozesadore kopurua eta kalkulua iraupen maximoa zein izango den azalduz. Hau egin ondoren "ni" komandoa erabiliz kalkulua kalkulatu dagoen edo ez ikusi dezakegu eta baita kalkulatu daraman denbora ere. Hasieran W (waiting) hizkia agertzen da, ondoren Q (queued) eta azkenik R (running). Adibide bezala ikusi 4.1-8.irudia, bertan input bat bidaltzeko metodoa adierazten da.



```

File Edit View Bookmarks Settings Help
[qq...@diastereoisomero]$
[qq...@diastereoisomero]$
[qq...@diastereoisomero]$ trantsizio_egoera.com
[qq...@diastereoisomero]$
[qq...@diastereoisomero]$
[qq...@diastereoisomero]$
[qq...@diastereoisomero]$ send_gauss trantsizio_egoera p_fast,8
Check input trantsizio_egoera.com format
Checking Procs ...
Job sent to 8 cpus and properties
Checking queue time ...
Requested queue time is 24:00:00
Choosing Procs ...
Checking mem ...
Checking trantsizio_egoera.com ...
Requested Memory is 7520
Job will be sent to 1 nodes and 8 procs
33362.arina
[qq...@diastereoisomero]$
[qq...@diastereoisomero]$ ni

arina:
Job ID      Username Queue  Jobname      SessID NDS  TSK  Req'd  Req'd  Elap
          Memory Time  S Time
-----
33362.arina qoapefuh p_fast trantsizio_egoer  --    1  --  7520mb 24:00 Q  --  --
[qq...@diastereoisomero]$
[qq...@diastereoisomero]$
[qq...@diastereoisomero]$
[qq...@diastereoisomero]$ ni

arina:
Job ID      Username Queue  Jobname      SessID NDS  TSK  Req'd  Req'd  Elap
          Memory Time  S Time
-----
33362.arina qoapefuh p_fast trantsizio_egoer 24214  1  --  7520mb 24:00 R 00:17
[qq...@diastereoisomero]$
  
```

**Input artxiboa**  
**Gauss 09 programara bidaltzeko komandoa**  
**Prozesadore kopurua**  
**Inputaren izena ("com" gabe)**  
**Kalkulatzeko denbora maximoa finkatzen du (fast, medium edo slow adibidez)**  
**Kalkulari jarri zaion izena**  
**Kalkuluaren egoera (W,Q edo R)**

**4.1-8.Irudia.** Input bat Arina klusterrera bidaltzeko pausoak.

Kalkulua egin ondoren klusterrak emaitzak ".log" moduan bidaltzen ditu. Output honek kalkuluei buruzko informazio asko du, egin den kalkuluaren arabera. 4.1-9.irudian optimizazio kalkulu baten outputaren edukiaren zati bat erakusten da.

```

File Edit View Bookmarks Settings Help
Entering Gaussian System, Link 0=g16
Input=reactivo1.com
Output=reactivo1.log
Initial command:
(...)

! Optimized Parameters !
! (Angstroms and Degrees) !
-----
! Name Definition Value Derivative Info. !
-----
! R1 R(1,2) 1.5167 -DE/DX = 0.0 !
! R2 R(1,12) 1.2105 -DE/DX = 0.0001 !
! R3 R(1,13) 1.1179 -DE/DX = -0.0002 !
! R4 R(2,3) 1.5394 -DE/DX = 0.0 !
-----
(...)

! Initial Parameters !
! (Angstroms and Degrees) !
-----
! Name Definition Value Derivative Info. !
-----
! R1 R(1,2) 1.5167 calculate D2E/DX2 analytically !
! R2 R(1,12) 1.2105 calculate D2E/DX2 analytically !
! R3 R(1,13) 1.1179 calculate D2E/DX2 analytically !
! R4 R(2,3) 1.5394 calculate D2E/DX2 analytically !
! R5 R(2,7) 1.5394 calculate D2E/DX2 analytically !
! R6 R(2,8) 1.0956 calculate D2E/DX2 analytically !
-----
(...)
Sum of electronic and thermal Enthalpies= -232.349010
Sum of electronic and thermal Free Energies= -232.386061
(...)
-----
GEORGE SANTAYANA
Job cpu time: < 0 days 0 hours 5 minutes 57.2 seconds
Elapsed time: < 0 days 0 hours 0 minutes 45.1 seconds
File lengths (MBytes): RWF= 24 Int= 0 D2E= 0 Chk= 2 Scr= 1
Normal termination of Gaussian 16 at Thu Jun 14 21:24:31 2018
  
```

**input/output artxiboen izenak**

**Kalkuluaren emaitza**

**inputean bidaltu zaizkion datuak**

**Molekularen entalpia eta energia elektronikoak**

**CPUak kalkulua egiteko behar izan duen denbora**

**Kalkulua bukatun den data**

**Benetan pasa den denbora**

**4.1-9.Irudia.** Output artxibo baten adibidea. (CPU= central processing unit)

Tabuladorearen bidez aurretik adierazi diren input/output pausoak egiteko eta kalkuluak Arinara klusterrera ondo bidaltzeko 4.1-1-taulan adierazten diren komandoak erabili dira.


**4.1-1.Taula. Tabuladorean erabili diren zenbait komando eta beraien funtzioa.**

Komandoa	Funtzioa
ls	Karpetan dagoena bistaratu.
cd (izena)	Karpeten artean mugitu ( .. atzeraka joateko).
mkdir	Karpeta berri bat sortu.
cp (izena) (izen berria)	Karpeta edo artxibo bat kopiatzeko .
mv (izena) (izen edo leku barria)	Karpeta edo artxibo bat mugitzeko edo izena aldatzeko.
vi (izena)	Artxibo bat bistartzeko.
:q	Artxiboa bistaratu ondoren bertatik ateratzeko.
:wq	Artxiboa bistaratu ondoren aldaketak gorde eta ateratzeko.
:q!	Artxiboa bistaratu ondoren aldaketak gorde gabe ateratzeko.
“control” F	Artxiboa bistaratu ondoren hurrengo orrialdera joateko.
“control” B	Artxiboa bistaratu ondoren aurreko orrialdera joateko.
:(lerro zenbakia)	Artxiboa bistaratu ondoren ipini den lerroa joateko.
:\$	Artxiboa bistaratu ondoren azken orrialdera joateko.
/(bilatu nahi den hitz edo hizkia)	Artxiboa bistaratu ondoren zerbait bilatzeko bertan.
grep “(bilatu nahi dena)” (non bilatu)	Artxiboa bistaratu gabe bilatu nahi den terminoren lerroa azaltzeko (* artxibo guztietan bilatzeko esan nahi du, */* artxibo guztietan eta bertako karpeten barneko artxiboetan ere).
N	Artxiboa bistaratu ondoren eta aurreko komandoa erabili ondoren bilatutako terminoen artean mugitzeko.
I	Input artxiboa bistaratu ondoren artxiboetan (.com) idatzi ahal izateko
“esc”	Aurreko komandoaren kontrakoa.
(zenbakia)dd	Input artxiboa bistaratu ondoren zenbakiari dagokion lerroa ezabatzeko.
mkdir (.log artxibo baten izena)	Arina klusterretik itzultzen diren kalkuluak Molden bidez irekitzeko.
“contsol” c	Momentuan egiten ari dena bertan behera uzteko..
rm (izena)	Artxibo bat edo gehiago (* erabiliz) borrazteko
rm -rf (izena)	Karpeta eta artxibo bat edo gehiago borrazteko.
send_gauss (izena) p_(denbora) (n)	Input bat Gaussian 16 kalkulura bidaltzeko komandoa. Izena “.com” gabe idatzi behar da, denbora ( <i>fast</i> , <i>medium</i> edo <i>slow</i> adibidez) eta n (prozesadore kopurua).
ni	Kalkuluaren egoera ikusteko.
qstat	Departamendu osoak bidaldu dituen input guztiak ikusteko.
now	Prozesadore guztien egoera ikusteko.
remote_vi (kalkulu zenbakia)	Inputa kalkulatzen dagoen bitartean artxiboa irekitzeko.
remote_molden (kalkulu zenbakia)	Inputa kalkulatzen dagoen bitartean Molden bidez artxiboa ikusteko.
qdel (kalkuluaren izena)	Kalkulatzen dagoen Input bat gaizki bidaldu denean bertatik ezabatzeko.
pwd	Karpeta eta artxiboen koordinatuak ikusteko

## 4.2 Jarraitutako pausoak.

Aurrekarietan azaldu diren lau erreakzioak ikertzean jarraian azalduko den prozedura jarraitu da.


Erreakzioak hiru zatietan bana daitezke, 4.2-1. eskeman ikusi daitekeen bezala A fasean aldehidoaren eta diaminariaren arteko kondentsazio erreakzio baten bidez enamina lortzen da, B fasean enamina eta maleimidaren artean Michael erreakzio diastereoselektibo bat gertatzen da eta azkenik C fasean aldehidoa lortzen da hidrolisi erreakzio baten bitartez. B fasea da guri interesatzen zaiguna, fase honen trantsizio egoera baita produktuaren egitura geometrikoa determinatzen duena.



4.2-1.Eskema. Erreakzio orokorraren A, B eta C faseen eskema


Enantiomero sobera azaltzeko B faseko aktibazio energia kalkulatu da. Horretarako B faseko substratuaren eta trantsizio egoeraren konformazio egonkorrenen Gibbsen energiak kalkulatu dira. Bi isomeroen aktibazio energiak konparatzeko R eta S isomeroen trantsizio egoerak kalkulatu dira.

Substratua, tartekariak eta produktuak kalkulatu dira. Hauek energetikoki minimoak direnez optimizazio kalkularen bidez beraien konformazio egonkorrena kalkulatu da. Horretarako Avogadro programaren bidez (4.1-1.irudia) molekula marraztu eta koordinatu kartesiarrak lortu dira. Jarraian X2Go programaren bidez optimizazio plantila bat erabili da Avogadroko koordinatu kartesiarrak ipintzeko (4.1-6.irudia) eta plantila edo input hau 2-1. taulan agertzen diren komandoen bidez kalkulatzera bidaldu da Gaussian 16 programara. Lortutako output artxihoan molekula optimizatuaren energia elektronikoa lortu da eta hau Kcal/mol unitatera pasa da errazago interpretatzeko. Optimizatu diren molekula zeintzuk izan diren 4.2-1. irudian ikus daiteke.



**4.2-1.Irudia.** Optimizazio kalkulak egin zaizkien molekulak.

Trantsizio egoerak kalkulatzeko beste pausu batzuk jarraitu dira, hauek energetikoki maximoak baitira. Avogadro programaren bidez (4.1-1.irudia) molekulak marraztu eta X2Go programaren bidez Arina klusterreko input batean koordinatu kartesiarrak sartu dira. Kasu honetan input hau optimizazioa kalkulu batena izan ordez ModRedundant kalkulu batena izan da (4.1-6.irudia). Kalkulu honen bitartez Michael adizio erreakzioan sortzen den karbono lotura finkatu da eta gainerako molekula guztiaren konformazioa optimizatu da. Jarraian 2-1. taulan agertzen diren komandoen bidez inputa kalkulatzera bidaldu da Gaussian 16 programara. Lortutako emaitza Molden programaren bidez aztertu eta azken puntua, hots, optimizatutako puntua ".pdb" moduan gorde da, 4.2-2. irudian ikusi daitekeen bezala.



**4.2-2.Irudia.** ModRedundant kalkulu baten output artxiboa Molden bidez irekia. Urdinez kalkuluaren hasierari dagokion energia, gorritz kalkuluaren bukaerari dagokiona eta ".pdb" bezala gordeko dena.



Molekularen egoera honetako energia ez da trantsizio egoerari dagokion energia, ModRedundant kalkulan lotura bat finko ipini denez ez da benetako trantsizio egoera. Hau kalkulatzeko 4.1-6.irudiko ts kalkulu bat burutu da, honek molekularen energiaren maximo bat aurkitzen du. ModRedundant kalkuluaren bidez trantsizio egoeraren egiturara asko urbidu gara eta ts kalkulua erraztu da. ModRedundant emaitza optimizatua koordenatuak ts plantilan ipintzeko FileZila bidez ".pdb" artxiboa Arina klusterretik ordenagailura deskargatu eta Avogadro erabiliz ireki da. Horrela ModRedundant bidez optimizatutako trantsizio egoeraren koordenatu kartesiarrak lortu dira eta berriro Arina klusterrean 4.1-6.irudiko trantsizio egoera (ts) plantila erabili da eta inputa Gaussian 16 programara bidaldu da. Lortutako emaitzak Molden bidez aztertu dira, bertan trantsizio egoeraren frekuentziak agertzen dira.

Trantsizio egoerari dagokion frekuentzia negatiboa da, 4.2-3. irudian adierazten den bezala molekularen frekuentzia hau begiratzuz atomoen mugimendua ikusi da, benetan lortu duguna erreazioaren trantsizio egoera den edo ez jakiteko.

Molden Frequency Select

Nr.	Frequency (cm <sup>-1</sup> )	Int.	Irrep.
1	-273,540	99,12	A
2	18,130	0,36	A
3	19,860	0,16	A
4	35,000	1,67	A
5	37,680	0,53	A
6	48,230	2,48	A
7	55,480	1,10	A
8	66,100	0,27	A
9	68,570	0,82	A
10	74,770	2,32	A
11	106,290	0,44	A
12	116,430	6,75	A
13	124,160	0,92	A


Scale Factor ?



**4.2-3.Irudia.** *Trantsizio egoeraren kalkuluaren emaitza Molden programan irekia. Frekuentzia negatiboa trantsizio egoerari dagokio, azpian ikusi daiteke zein den eratzten den lotura.*


Optimizatutako trantsizio egoera gorde egin da ".pdb" bezala eta IRC kalkulu baten bidez trantsizio egoera benetan guk aurkitu nahi dugun erreakzioarena dela baieztatzen da. IRC kalkulu baten adibide bezala 4.2-4. irudia ikusi daiteke, kalkuluaren hasiera eta bukaera konparatuz molekularen mugimendua ikusiz erreakzioa zein motakoa den ikusi daiteke.





**4.2-4.Irudia.** IRC kalkulu baten adibidea. Ezkerrean kalkuluaren hasiera, eskuinean bukaera. Puntu hauen bitartez argi ikusten da trantsizio egoera zein erreakziori dagokion.

Aztertu diren trantsizio egoerak 4.2-5. irudian ikus daitezke. Trantsizio egoera bakoitzarentzako konformazio asko aztertu dira eta karbono asimetriko bat eratzen denez S eta R produktuaren trantsizio egoerak aztertu dira kasu bakoitzean.



**4.2-5.Irudia.** Lan honetan aztertu diren trantsizio egoerak.

Kalkuluak burutzean ez da disolbatzailea kontuan hartu, erreakzioak gas fasean emango balira bezala kalkulatu dira. Disolbatzailearen efektua kontuan hartzeko 4.1-6.irudiko sp kalkulu plantila erabili da. Honen bitartez Gibbse energia zuzenduak kalkulatu dira, molekula bakoitzaren egonkortasuna disolbatzaile desberdinetan aldatzen

delako. Hau izan da 3 eta 4 erreakzioen (ikusi 2-1. taula) enantiomero soberak konparatzeko erabili den metodoa.

Erreakzioak aztertzeke lehenik 1. erreakzioa aztertu da (ikusi 2-1.Taula) eta bertan lortutako molekula optimizatuak eta trantsizio egoerak oinarritzat hartuz R taldea aldatu eta 2. eta 3. erreakzioetako molekulak optimizatu eta trantsizio egoeren energiak kalkulatu dira. Erreakzio guztiak sp kalkularen bidez zuzendu dira bakoitzari zegokion disolbatzailearekin. Azkenik 4. erreakziorako 3. erreakzioko sp kalkuluei disolbatzailea aldatu zaie bakarrik.


Aktibazio energiak kalkulatzeko trantsizio egoeren energien eta dagokien errektiboen energien arteko kenketa egin da. Aktibazio energia hauekin Arrheniusen ekuazioaren bidez S eta R produktuak lortzeko aktibazio energiak konparatu dira, Arrhenius ekuazioan gainerako guztia berdina izanik. Bi enantiomeroen konstante zinetikoen arteko proportzioaren bidez ee kalkulatu da eta balio esperimentalekin konparatu da.

Aipagarria da kasu batzuetan bai optimizazio kalkuluetan eta baita ere trantsizio egoeren kalkuluetan arazoak egon direla. Kalkulu batzuk kalkulua bukatu gabe edo ezer ez kalkulatu gabe itzuli dira. Lehenengo kasuaren zergatia Gaussian 16 programari kalkulua egiteko eman zaion denbora motza izan dela da, eta kalkularen azkeneko puntua gorde eta berriro bidaldu da. Bigarren kasuan input artxiboa gaizki idatzi delako izan da. Behar izan denean kalkulua luzatu da "*fast*" bezala ordez "*medium*" bezala. Hala ere batzuetan inputa ondo idatzi arren kalkulatu gabe itzuli da edo kalkuluak klusterretan galdu dira. Kasu hauetan IZO/SGI SGiker zerbitzu konputazionalari laguntza eskatu zaio. Normalean arazoa nodo batzuetan erabiltzaileak baimenik ez edukitzea izan da eta kalkulua nodo hauetara joan denean bertan gelditu da. Nodoak etengabe mantenimenduan daude eta erabiltzailearen kontua ireki zenean mantenimenduan zeuden nodo batzuetan erabiltzaileari baimenik eman gabe gelditu ziren. Hau konpontzeko IZO/SGI SGiker zerbitzu konputazionalak nodo hauen baimenak eguneratu ditu.

## 5. Emaitzak eta eztabaida.

